



ZERAIN

urtekaria

2010

Museo bat baino askoz ere gehiago!



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- Museoa handitu dugu, GAIA: Energeia eta Natura atal berriekin.
- 170 esperimentu interaktibo baino gehiago.
- Planetarium Digitala.
- Planetarium Txikia.
- Simulagailua: Errusiar Mendia.
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta.
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta.

BERRIA



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegi Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia

Tlf: 943 012 478. www.mirammon.org

kutxaespacio@kutxagunea.org

parte de ti



Kaixo irakurle!

Abuztuarekin batera Andramari eta San Roke jaiak heldu dira Zeraina, eta hauekin batera urtekariaren ale berria kaleratu dugu. Eta ia oharkabean, 23. alea egin dugula konturatu gara. 1988an hasitako bidean, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke, urtero iritsi da festetarako garaiz urtekaria.

Ez da lan makala Zerain bezalako herri txiki batean, oso-osoki herritarrek egindako urtekaria kaleratzea. Baina horrela, historia, gure historia, gu geu ari gara idazten. Ea beste urte askoz horrelaxe jarraitzeko biderik izaten dugun, jende gehiagoren parte hartzearekin, ahal dela.

Beti bezala, eskerrik asko urtekari hau egiteko beren lantxoa eta lan potoloagoa egin dutenei; eta mila esker baita ere, diruz lagundu dutenei.

Ale hau ere zure gustukoa izango delakoan eskerrik asko zuri ere, irakurle, eta datorren urtera arte.



Artikulua**Orrialdea**

Sarrera.....	3
Elkarrizketa.....	6
Ekintzak.....	14
Aipagarriak.....	20
Guraso elkarte.....	24
Zerain Dezagun Fundazioa.....	26
Argazki zaharrak.....	29
Eusko Ikaskuntza Zerainen.....	33
Sareko Zerain-ak.....	40
Goya, Zerain eta Euskal Herria.....	41
Argindarra Zerainen.....	42
Markos Alustizari jarritako bertsoak.....	49
Futbol-urte, krisi-urte.....	50
Aiertzako sugerria eta Araneko petrikiloa.....	54
Haurren txokoa.....	56

Egilea: Oa Kultur Elkartea

Lege gordailua: SS - 724-1996

Azala: Joxemari Telleria

Diseinua eta maketazioa: Ion Muñoa

Argazkiak: Udaleko artxiboa, Herri-eskola, Otatza, Larraondo, XaguArtea, Guraso elkarte, Aitziber Makazaga, Xabier Lazkanoiturburu, Haritz Iztueta

Laguntzaileak: Aitziber Makazaga, Kontxi Errasti, Alaitz Makazaga, Andoitz Telleria, Miren Makazaga, Mariajexux eta Elena Mendizabal

Inprimategia: Antza Lasarte-Oria

Zerainen, 2010eko abuztuak 13

Bolatearen plazan, afizioa akuilu



Bolo bat, bederatzi birla, txaparro bat eta nahi adina jokalaria. Tradizio handiko kirola da bola-jokoa Zerainen. Herriaren parte izatera iritsi da kirol hau, baina Zerainek berak ere asko eman dio jokoari. Liztormendi Elkartean juntatu gara herriko hiru bolari handirekin, Antonio Alustizarekin, Luis Aizpeolearekin eta Patxi Arrondorekin, bola-jokoaren lehenaz, orainaz eta geroaz hitz egiteko.

Arantzazu Muñea

Noiztik ibili zarete zuek bolatan?

Luis Aizpeolea: Betitik. Txiki txikitatik. Gu txikiak ginenean eskola plazan zegoen eta errekreora irtendako guztietan bolatan ibiltzen ginen. Beste ezer ez zegoen. Mutiko-mutikotatik ibili gara bolatan.

Antonio Alustiza: Nik ere nire

denbora guztian ezagutu dut bolatea.

Patxi Arrondo: Guk ere ezagutu oso txikitatik. Izan ere, gure amaren jaiotetxean, Gaztelun, izan zen bolalekua eta baita taberna txiki bat ere. Gero eskolara abiatu ginenean herriko goiko plazan bolatokia ezagutu genuen. Hor izugarrizko jende

mordoa egoten zen. Gu txikitan, mutikotan Gaztelun ibiltzen ginen bolatan. Han beste jolas-tokirik ez zen.

Luis: Esaten dutenagatik jaiero jende asko juntatzen zen Gaztelun, nik ez nuen ezagutu baino. Mutilo, Zerain edota Aztiri aldeko jende guztia juntatzen omen zen han.

Antonio: Bai, bai jende asko. Bolate eta taberna bueltan soinua ere izaten zen, baita neska-laguntzeak eta gainerakoak ere.

Luis: Hemen herrian berriz, Errementariko atarian egoten zen boloa, eta giro ona bazegoen egunik gehienetan egiten genuen bolatan.

Bolatea beraz, eguneroko jokoa zen, ez igandetakoa bakarrik?

Luis: Ez, ez. Herrian ez. Gaztelun eta horietan bai.

Patxi: Gaztelun gure aita zenak-eta goiko txabolari teilak kendu eta bolatokia tapatu egin zuten. Hura tapatu zenean, bakarra izango zen aterpean zegoena. Eta ilunduta ere, argia jarrita aritzen ziren han bolatan. Han taberna ere bazen eta astoarekin etortzen ginen gu sindikatura garrafoiak eramatera. Eta askotan han 50 lagun inguru juntatzen ziren eta ardoa edo oilarren bat edo jokatzen zuten.

Zer dela eta hasi ziren bolatan?

Antonio: Gu txikiak ginenean hemen beste ezer ez genuen ikusten. Jai arratsaldea iritsi eta aitona bolatan. Festaren batera joan eta jendea bolatan: ardo-jokoa egin eta ibiltzen ziren.

Luis: Bai, bi talde egiten zituzten, gutxiena jotzen zituen taldeak erronda ordaindu eta etxera martxa. Hemen soziedade hau egin zenetik ere denbora luzean egon da ohitura hori: 'ba, ardo batzuk jokatuko ditiagu', baina orain ahaztuta dago ohitura hori.

Antonio: Zaharrak gazteen kontra-eta, tipo horretara ibiltzen



Antonio Alustiza, Luis Aizpeolea eta Patxi Arrondo Liztormendi bolatokian.

ginen.

Patxi: Gazteluz gain Bordan ere bazen bolatokia.

Antonio: Bordan bi baziren: bat handiagoa eta bestea txikiagoa mutikoentzako. Eta gero Aizperrotan ere bazen.

Luis: Hiru taberna nola ziren han...

Patxi: Bai, eta gainera nire akuerdoan baxoerdirik-eta ez zen eskatzen. Horrelako ohiturarik ez zen han. Litro erdia edo litroko

botila-ardoa eskatzen zen. Ontzi batzuk litro erdikoak zeuden eta beste batzuk litrokoak. Orain litro ardo eskatuz gero botila ekartzen zuten eta kito. Geroko kontuak dira baxoerdiarenak.

Luis: Bai ardoaren bueltan gero beste batzuek soinuarekin hotsa ateratzen zuten eta festa jartzen zuten.

Zerainen garai batean bolatoki mordo bat zela esaten dute.



GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN **ZERAIN DEZAGUN**
FUNDAZIOARI



Ezkerrean, plazako bolaleku zaharra jendez gainezka. Eskuinean, Luis Aizpeolea gaztetan garaikurra eskuan duela.

Zuek zenbait ezagutu dituzue?

Antonio: Nik asko ezagutu ditut. Aizpean lau. Inurrategin beste bat... bost. Irukaten... sei. Tellerin... zazpi. Gure etxean... zortzi. Antxaputxun... bederatzi. Antsostegin... hamar. Sagastibilen... hamaika. Otatzan... hamabi. Jauregi atzean... hamahiru. Eta plazakoa... hamalau.

Luis: Eta besteren bat ere igual izango zen. Baina horiek, hamalau, behintzat bai.

Zuek hamalauetan ibili zarete?

Antonio: Ni bai.

Luis: Nik ezagutu bai, baina ibili ez.

Patxi: Ni ere hamalauetan ez naiz ibili.

Antonio: Hauek baino zaharragoa naiz ni-eta.

Bolatokiak beraz, baserri askotan ziren.

Patxi: Bai askotan. Orduan ez zegoen besterik eta etxearen aldamenean bolatoki bat egitea ohikoena zen. Izan ere, orduan jaia ailegatzen zen eta nora joaten ginen? Aztirira. Hartu bokadiloa, zegoenetik eta arratsalde guztirako.

Antonio: Bizikletarik ere ez zegoen orduan-eta. Gure anaiak zuen hemen bizikleta. Ni akordatzan naiz San Pedro egun batez Mutilora festara joan eta anaia non ikusiko ibili nintzela. Huraxe zen nire festa. Anaia festan ikusitakoan etxera etorri nintzen ni. Hiltze batetik zintzilika edukitzen zuen bizikleta. Hura hartu eta gora eta behera ibili nintzen. Hura baino festa hoberik ez zen niretzat.

Oraingo aldean jende asko ibiliko zen zuen gazte-garaian bolatan.

Luis: Orain Gipuzkoa guztian 120 lagun ibiltzen gara bolatan. Zerainen orain dela 48 urte 120 lagun bolatan irtenda omen daude, Zeraingo, Mutiloko, Aztiriko eta ingurukoaren artean.

Bolatea jokoaren jatorriaren gainean teoriak badira. Zuek ezer entzunik ba al duzue?

Luis: Nik aditutakoa da 1500. inguruan, Arrasate ingurutik Ameriketara joan zirenean, haiek eraman zutela bolatea harantz. Beraz, hemen lehenagotik bazen. Horiek beste modelo bat ibiltzen dute.

Antonio: Gure aitonak-eta aurrekoek ere egiten zuten bolatan. Gure aitonak erronka botatzen omen zuen, bera bost semerekin beste edozein etxetakoan kontra.

Bolatan ikastea asko kostatzen al da?

Luis: Gaztetan ez. Batzuek behin ere ez dute ikasten baino. Mutikotan hasiz gero errazagoa da.

Antonio: Gazteak segituan ikasten du. Baina behin geroago hasiz gero...

Patxi: Gainera, zuk konparazioa egin behar duzu, garai hartan, gu umeak ginenean, koadrilak egiten

«Bolatan egitean
gorputz guztia
mugitzen duzu, parte
guztiei eragiten
diezu ejertzizioa eta
nik uste dut horrek
bentaja baino ez
duela egiten»

Patxi Arrondo

«Behin gaztetan
ikasten duenari, gero
aldi batean utzita
egonagatik, ez zaio
ahazten bolatan.
Bizikletan ibiltzen
ikastea bezala da
hori»

Luis Aizpeolea



Patxi, Luis eta Antonio, Liztormendi soziedadearen kanpo aldeko margolanaren aurrean.

zuela bolatan eta horren inguruan mugitzen ginela gu.

Garai hartan, era guztietara ere, gizonezkoak bakarrik ibiliko ziren ezta?

Luis: Bai. Orain emakume batzuk badaude tiratzen dutenak, baina orduan ez. Dena den, askotan jendea begiratzen jartzen denean pentsatzen du erraza dela eta hori berak ere egin dezakeela, baina probatzen hasitakoan... orduan komeriak.

Antonio: 'Bidea ere egina dago eta', esaten dute askok.

Patxi: Gauza erraza ematen du, baina badu bere trukua.

Luis: Behin gaztetan ikasten duenari, gero aldi batean utzita egonagatik, ez zaio ahazten. Bizikletan ibiltzen ikastea bezala da hori.

Zerainen 120 lagun bolatan eginda omen daudela aipatu duzue, baina ordutik nabarmen

«Gazte batzuk oraindik ere bolatan hasi hasten dira, baina gaupasan hasten direnean bukatzen zaie zaletasuna»

«Gu zapatuero geratzen gara arratsaldeko 4etan jokatzeko. Beraz, hasi nahi duenak badaki zer egin»

Antonio Alustiza

egin du behera zaletasunak. Zergatik gertatu da zuen ustez beherakada hori?

Luis: Gaur egun mila deporte daude, gainera gazteak estudioekin-eta okupatuta daude. Eta diru aldetik ere pobre samarra da bolatea. Nik uste dut hori dela arrazoia.

Antonio: Gazte batzuk oraindik ere bolatan hasi hasten dira, baina gaupasan hasten direnean bukatzen zaie zaletasuna. Berandurarte parrandan egonez gero, gero ez dago jaikitzerik bolatera joateko.

Patxi: Gaur egun, bolateetara joateko, afizio fuerte samarra behar duzu eduki. Orain jaietan jendeak eta gazteak beste zerbait egin nahi du. Eta Luisek esan duen bezala diru-aldetik ere irabazirik ez dagoenez ba... beste deporte batzuk baino errazago uzten da bolatea. Horrek guztiak bolateak pisua galtzea dakar. Ez dio ematen jendeak halako inportantziarik.

Zuek hasi zinetenetik gaur



egunera bolatan egiteko modua aldatu al da?

Antonio: Asko ez, zer edo zer aldatzen da baino. Lehen bolalekuak luzeago ziren eta goiko pasorik ere ez zuten. Bola ondo tiratuta ere igual joaten zen birlak baino goragotik aurrera.

Luis: Horrelako aldaketatxo batzuk egin dira, baina oinarrian lehengo joko bera da.

Toki batzuetatik beste batzuetara ere bola jokoa aldatu egiten dela esaten duzue.

Antonio: Gipuzkoan bolatoki denak igualak dira.

Luis: Bai. Baina Arrasate, Eibar, Elgoibar eta horietan 'hiru-txirlo' deitzen dena jokatzeko dute. Haiek bederatzi birlarekin beharrean, hirurekin jokatzeko dute. Hortik datorkio izena. Bola ere txikiagoa da: bi kilo eta zortziehun pisatuko ditu hark. Gureak, bederatzitik gora askotan. Hemengoari 'bolatoki' deitzen zaio.

Errazagoa al da beraz hura?

Antonio: Guretzat ez.

Patxi: Bakoitza berera dago ohituta. Guk hau jaioeratik ikusi dugu eta errazago da. Baina haiek txiki-txikitatik hartan hasten direnez hartara ohitzen dira.

Besoarekin horrenbesteko indarra egitea kaltegarria igual izango da gorputzarentzat.

Patxi: Nik kontrakoa uste dut. Bolatan egitean gorputz guztia mugitzen duzu, parte guztiei

eragiten diezu ejertzizioa eta nik uste dut horrek bentaja baino ez duela egiten.

Antonio: Legazpiko Etxeberria bolariak ere hala esaten zuen, pertsona zaharrarentzako nahikoa zela boletako entremendua: birlak jarri eta bola bota eta buelta.

Luis: 86 urterekin hil zen, eta gainera istripuz, kotxe batek botata.



Boloak eta birlak zein materialetakoak dira?

Luis: Artearen egurra da. Orain arte Arabatik ekarri ditugu, baina artea ere gastatzen ari da eta hemendik aurrera tefloiarekin egingo ditugu. Ofiziala ez denean horrekin botatzen dugu. Lurrari gutxiago heltzen dio eta ez duzu bola gastatzen; urteetarako daukazu. Legazpin froga egin zuten eta 22.000 bola tiratu eta 600 gramo bakarrik galdu omen zituen. 9 kilotatik artean 8 kilo eta

«Orain Gipuzkoa guztian 120 lagun ibiltzen gara bolatan. Zerainen orain dela 48 urte 120 lagun bolatan irtenda omen daude»

Luis Aizpeolea

600 gramo zeuzkan. Egurrezko batekin hiru lehiaketa bakarrik egiten dira.

Antonio: Eta hori ondo kasu eginda. Bestela pitzatu egiten da.

Luis: Bi urte barru dena berriarekin jokatuko da. Birlak berriz, dagoeneko plastikozkoak, edo beno, tefloizkoak dauzkagu.

Bolatokia bera ere mantendu behar izaten da. Nola egiten da hori?

Antonio: Urarekin mantentzen da. Azpitik tuberia doa eta hor doan ura graduatu behar da, bestela gainezka egin eta bolatokia urez betetzen delako. Oso zaila da ondo edukitzen. Ondo nibelatuta edukiz gero, erlojuarekin-edo, ez da hain zaila, baina hemen guk jarritakoa dago eta askotan kosta egiten da ondo mantentzen.

Luis: Hau (Antonio) beti gainean egoten da eta horri esker ondo mantentzen da Zeraingoa.

Patxi: Lehen, kanpokoetan ez zen zainketarik eta gainerakorik.



«Lehen bolatokiak taberna behar zuen ondoan. Taberna aldamenean zeuden bolatokiek lehen ere tiradizo handiago zuten»

Patxi Arrondo

Luis: Gaur egun ere txapelketa ofizialak tapatueta bakarrik egiten dira.

Jendea bolatan gehiago ibiltzera bultzatzeko zer egin beharko litzateke zuen ustez?

Luis: Oso zaila ikusten da. Mutikoak etortzen dira gurasoak edo osaba edo tartekoren bat horretan dabilelako, baina gainontzean...

Patxi: Samurra ez da gazte jendeari bolatarako zaletasuna sartzen. Baina lehen bolatokiak taberna behar zuen ondoan. Taberna aldamenean zeuden bolatokiek lehen ere tiradizo handiago zuten.

Luis: Bai eta behealdean denak sagardotegien ondoan zeuden eta gehienak hala daude oraindik.

Patxi: Bai, bolatokia mantentzeko

saltsa hori behar da.

Zerain hain herri txikia izateko bolari on dezente daude. Zeri zor zaio hori?

Antonio: Aritzearen poderioz lortzen da hori.

Patxi: Garai batean hasi eta jarraitu izan dugunoi esker, beti eusten joan gara. Orain atzetik datozenekin ia zailago ikusten dut nik.

Beste kiroletan edadea egoten da normalean. Bolateak dirudienez ez du adinik.

Luis: Bai hori hala da. 80 urteko jendea ere tiratzen ari da oraindik. Gainera bolariak urte gehiago egiten omen dituzte.

Zerainen zenbat lagun ari zarete?

Luis: Aurten 10 lizentzi aterata dira. Gu hirurok, Garbiñe Alustizak, Itoiz Alustizak, Aitziber Makazagak, Iban Aizpeoleak, Koldo Aizpeoleak, Aitor Zabalok eta Kozmendik (Iñaki Berasategik).

Zenbat ordaindu behar da?

Luis: Urtean sei euro.

Beraz, oraindik Zerainen badago etorkizun pixka bat.

Antonio: Bai, gu zapatuero geratzen gara arratsaldeko 16:00etan jokatzeko. Beraz, hasi nahi duenak badaki zer egin.



Emakumeak eta gazteak etorkizuneko giltza

Orain dela gutxira arte gizonezkoen kirola izan da bolatea. Gaur egun, ordea, emakume bakar batzuk ere ari dira jokoan. Emakumeak ez-ezik, gazteak ere bakanak dira bolatokitetan. Zerainen, emakume, zein gazte, aritzen dira boletan. Horietako birekin hitz egin dugu: Aitziber Makazagarekin eta Itoiz Alustizarekin.



Aitziber Makazaga

"Guk ere Zerainen lan egin beharko dugu gazte batzuk bolatan hasi eta bolalekua bizirik mantentzeko"

Bolarien artean gehienak gizonezkoak dira. Noiz eta nolatan hasi zinen bolatan?

Ez dakit juxtu zein urtetan hasi ginen. Antonio Alustiza esan eta esan zebilen, emakumeok ere hasi beharko genuela, eta halaxe, larunbat arratsaldetan hasi ginen entrenatzen. Lehenengo egunean jende asko azaldu zen, baina gero pixkanaka-pixkanaka jendea uzten joan zen. Bultzada moduan, emakumeen Gipuzkoako txapelketa Zerainen jarri zen 2003an, eta sei emakumek hartu genuen parte. Gaur egun Zerainen hiruk jarraitzen dugu.

Emakumeen artean gainera, onena edo onenetako bat zara. Hain denbora gutxian nola lortu duzu?

Ez dut uste onena naizenik. Suerte kontua ere bada. Ez da indar kontua, gakoa ibiltzea da. Odolean ekartzen dela ere esaten dute batzuek. Orain, nire aitona ez dut uste oso ona zenik, ezkertia omen zen eta esaten dutenez, bolatan, ezkertiak ez omen dira onak izaten.

Bolatan egiteko indarra baino gehiago tajua behar dela esaten dute, hori hala bada, ba al da alderik gizonezko bolari eta emakumezko bolarien artean?

Indarra ere behar da, baino boloa behar den lekuan sartzeko, oholean ondo atera eta igiera ona eman behar zaio. Horretarako ibiltzea bezalakorik

ez dago. Orain, indarra ere behar duzu zortzi kilo inguruko boloa altxatzeko ere. Lehenengo aldiko hartan, boloa oholetik pasatu ere ez genuen egiten, eta orain denok ailegatzen gara.

Txapelketetan bereizita aritzen zarete gizonezkoak eta emakumezkoak, baina aukerarik ikusten duzu txapelketa berean emakumeak gizonezkoen pare aritzeko?

Gipuzkoako txapelketan, haurrak, gazteak, emakumeak eta beteranoak bereizten dira. Ekainean, urtean behin izaten da txapelketa. Bestela, gizonezkoak eta emakumezkoak denak nahastuta ibiltzen gara. Horren adibide dira otsailean ospatzen den Endikaren omenezko bolatea, Andramaritakoa edota San Raketako txapelketa. Hor parte hartzen dugunotan, gizon eta emakume, denok batera ibiltzen gara.

Zer behar da bolari ona izateko?

Bolatan sarri-sarri aritzea.

Aurrera begira, nola ikusten duzu bolatea? Eta emakume bolariak?

Beste herri askotan, dagoeneko gazte bolariak badatoz. Guk ere Zerainen lan egin beharko dugu gazte batzuk bolatan hasi eta bolalekua bizirik mantentzeko. Gazteekin batera, gizon nahiz emakume, denok hartu beharko dugu bolateari eusteko konpromisoa.

Itoiz Alustiza

"Nik ere egiten dut parranda, baina saiatzen naiz parranda eta bolatea biak uztartzen"

Bolarien familiakoa zara, eta zeure aurrekoak bezalaxe ona zeu ere. Odolean ekartzen al da hori?

Zerikusia izango du, baina ordu asko sartu behar dira bola ondo jaurtitzen ikasteko, ez da genetika bakarrik.

Zauden maila iristeko zer egin behar da? Asko entrenatzen al duzu?

Argi dago entrenatzea garrantzitsua dela, entrenatzen ez bada nabaritu egiten da txapelketa batean. Aitonak eta nik larunbatero entrenatzen dugu Zeraingo bolatokian.

Bolari gazte gutxi daude. Beste kirol batzuetan kontrakoa gertatzen da. Zure ustez zergatik da hori?

Ba nire ustez beste kirol batzuk nahiago dituztelako, bola-jokoa ez denez oso entzutetsua nahiago dute beste kirol batzuetan aritu; baina hala ere badaude bolari gazteak.

Antonio Alustiza zure aitonak dio gazteak hasi hasten direla bolatan, baina "gaupasarako" garaia iristen zaienean utzi egiten dutela, besteak beste, egun batzuetan goiz samar jaiki behar izaten delako. Zu zein fasetan zaude?

Nik ere egiten dut parranda, baina saiatzen naiz parranda eta bolatea biak uztartzen. Bolatea goizez eta arratsaldez bada, arratsaldez joaten

saiatzen naiz, eta goizez bakarrik bada ahal den beranduena joaten naiz.

Musika punk-a egiten duzu, postmodernotasunarekin lotzen da hori, bolatea berriz, tradizioarekin. Zuk nola uztartzen dituzu biak?

Bai punk musika egiten dut eta baxua jo eta abestu egiten dut. Jende askok esaten dit oso arraroa dela bolari batek musika hori entzutea eta egitea, baina nik egia esan ez dut horretan pentsatzen, iruditzen zait ez duela zerikusirik batak bestearekin.

Aurrera begira bolatan jarraitzeko asmoa al duzu?

Bai, gero eta jende gutxiago aritzen da baina txapelketak eta horrelakoak antolatzen diren bitartean nik gustura jarraituko dut.

Zer ematen dizu bolateak?

Nik denbora pasa bezala hartzen dut. Ez da beste kirol batzuetan bezala. Bolariak ez dira horretatik bizi. Ez irabazita ere ez da ezer gertatzen, ez dago arduratu beharrik.

Zer esango zenieke beste gazteei?

Gutxienez probatzeko, ez dutela ezer galtzen eta gustatzen bazaie beraiek ikusteko. Gainera herriko festetan gazteentzako sariak egon ohi dira, beraz anima daitezela.

TELLERINE BASERRIA



NEKAZALTURISMOA

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpea Auzoa
Tel. 943 58 20 31
20214 ZERAIN

ANDRAMARI JAIK

Bero itzelarekin hasi eta lanbrotan bukatu genituen iazko Andramari jaiak. Baina hori bai! beti bezala, giroa aparta izan genuen.

Andramari bezperan, umeak izan ziren protagonista egunean zehar. Goizetik hasita puzgarriak, jolasak, antzerkiak, dantzak, merienda, buruhandiak eta beste hamaika entretenimendu izan zituzten. Iluntzean berriz, etxafuero eta kanpai bueltakoekin hasiera eman ondoren txekorra janez eta sagardoa dastatuz jende ugari bildu zen goizalde arte. Gauean Trakets taldearen doinuekin majo astindu zituzten hankak inguratu zirenek.

Andramari eguerdian beroa izan zen izar nagusia. Txakolin freskoa ederki sartzen zen halako bero zakarrarekin, baina badaezpada jendeak itzalak ongi okupatu zituen. Urteroko ekintzen artean, bola txapelketa, aizkolarien saioa eta 40 urtetik gorako dantzarien txapelketa aipa daitezke. Iluntzean gazteak umore betean ibili ziren trikipoteoan eta afarian, eta gauean jendeak nahikoa algara egin zuen asto karrera xelebrea tarteko.

San Roke egunean, dantza-soka egin zuten herriko agintariak aspaldiko ohitura berreskuratu eta bigarren urtez jarraian. Nahiz eta dantzan munduko onenak ez izan, herritarrek gustura begiratu zieten. Arratsaldean, herriko pilotari gazteek inguruko herrietakoen kontra hainbat pilota partida jokatu zituzten. Gauean, herri afaria umore ederrean hasi zen, baina afaria amaitzerako lauso bizi bihurtu zen lanbroa hasi zen. Saiatu ziren Lizaso eta Zubeldia artepetik umoreari eusten, baina ez zen erraza izan halako eguraldiarekin. Hiru eguneko jaien ondoren, atsedena hartzeko egunak iritsi ziren herria txukundu ostean. Betiko moduan izan zen anekdota eta bilobei kontatzeko moduko istoriorik, baina oro har, festak umore ederrean eta aparteko ezustekorik gabe joan ziren.

PEREGRINAZIOA

Irailaren 5ean urteroko erromesaldia egin zen Arantzazura. Goizeko 8etan herriko plazatik irten ziren



Beroak itzala bilatzera behartu zuen jendea Andramari eguerdiko txakolin festan.



Azoka ekologikoan jende ugari gerturatu zen Zerain aldera.



Perratzailearen ofizioa ezagutzeko aukera ezin hobea izan zen azoka egunean.

erromesak. Batzuk bertatik oinez eta beste batzuk Aldaola aldera arte kotxez joanda, Urbiara jo zuten. Han denek elkarrekin bazkaldu eta arratsalderako iritsi ziren

Arantzazura. Eguraldiak lagunduta, egun pasa bikaina egin zuten.

XV. AZOKA EKOLOGIKOA

Jende ugari bildu zen urte bat

gehiagoz ere XV. azoka ekologikora. Salmenta postuak produktuz beteta egon ziren eta tailerrek jendea gozarazi zuten; batik bat gaztentxoak. Urteroko moduan sagar muztioak jendearen ahoa goxatu zuen. Horrez gain, nobedade gisara, zaldi-perratzailea eta kupelagilea euren langintza erakusten aritu ziren.

Arratsaldean ez zen azoka-posturik egon, baina herri kirol saioa egin zuten herriko gazteek. Eguraldiak hala behartuta, arratsaldeko festa frontoian egin zen.

ZALDI LASTERKETA

Urriaren 18an, zaldi lasterketa edo *raid*-a egin zen Zerainen. Irteera eta helmuga plazan bertan izan zituen karrera honek eta herriko lurretan zehar bi zirkuitu ezberdin osatu behar izan zituzten zaldiek eta zaldizkoek. Behor eta zaldi bikainak ikusteko aukera ezin hobea izan zen.

KULTUR ASTEA

Iaz aldatu egin zen kultur astearen data. Irailean, azoka ekologikoaren aurreko astean, egin beharrean, urriaren 17tik 25era egin zen kultur astea. Astelehenetik ostiralera, gai interesgarriei buruzko hitzaldiak izan genituen iluntzetan. Larunbatean



Zaldi ederrak ikusteko aukera izan zen urriko zaldi lasterketan.



Gabonetan talde politak irten ziren aurten ere kantuan etxez etxe.



ONDARRE

ETXERA KO ETA
SOZIDADERAKO
HARAGI ONENA

Zurbano kalea
20214 SEGURA

Tel: 943 800326



Lehen aldiz jokatu zen aurtengo neguan Urrezko Aizkorako txapelketako saioa Zerainen. Tartean zen Xabier Dorronsoro.

berriz, egun guztiko festa izan zen. Goizean herriko haur eta gaztetxoak marrazki-festan aritu ziren. Eguerdian, berriz, frontoian herrikantu-bazkaria egin genuen lehenengo aldiz. Igandean, jubilatuen egunarekin amaitu zen kultur astea.

GABONAK

Gabon egunean zehar herrian gabon kantak abestuz herritar talde bat ibili zen egun osoz herriko etxe guztiak pasatuz. Eskolako haurrak beren irakasle eta gurasoei goizez ibili ziren herri inguruko etxeetan. Iluntzean, haurren gozamenerako, Olentzero etorri zen menditik behera, gurdian haurrentzat opariak eta denentzat gaztaina erreak ekartzera.

URREZKO AIZKORAKO SAIOA

Urtarrilaren 30ean, larunbata, *Urrezko Aizkora* txapelketako saioa jokatu zen Zeraingo pilotalekuan. Iluntzeko 7etatik aurrera, zortzi aizkolari aritu ziren egurrak moztzen; tartean Xabier Dorronsoro, aguazila Irazabal bizkaitarra lagun zuela.

TUTE ETA MUS TXAPELKETAK

Otsailaren 6an, Liztormendi elkarteko tute txapelketa jokatu zen. Bikote guztien artean, Iñaki Berasategi *Kozmendi* herritarra eta Luis Aranburu mutiloarra nagusitu ziren. Finalean bi segurarri, Julian



Kozmendi izan zen tuteko txapelketako irabazleetako bat.



Zegamar gazteak nagusitu ziren museko txapelketan.



Makina bat mozorro bitxi ikusi ziren inauterietan Zeraingo plaza aldean.



Eskolako haurren antzerkia eliz atarian.



Patxi Arrondo herritarrak irabazi zuen Endika Alustizaren memoria.

Imazi eta Pako Ariztimuñori, irabazi zieten. Handik 15 egunera, otsailaren 20an, mus txapelketa jokatu zen. Tutekoan baino bikote gehiagok parte hartu zuten. Azkenean, Jon Arakama eta Urko Garaia gazteek finalean mendean hartu zituzten Fermin Mantecon segurarra eta Juan Luis Izagirre zegamarra.


SAN BLAS EGUNA

Otsailaren 3an, San Blas eguna ohi bezala Burgomendiko ermitan ospatu zen. Mezaren eta janari bedeinkapenaren ondoren, soziedadean merienda izan zen.

ITURRIOZ S.A.

Erainkuntza eta eskabazio lanak

Eziolatza poligonoa, 24 B
20213 IDIAZABAL (Gipuzkoa)



Telefona: 943 187 556 - Fax: 943 187 356



Santa Ageda bezperan harrera bikaina egin zuten etxeetan.



San Isidro egunean, hotzak ez zuen jendea ikaratu.

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa honen izenean... aurten ere herriar talde bat bazkalondorenen Aizpe auzotik hasita, etxez etxe ibili zen tartean lehengo koplak zaharrak kantatuz. Entzuleek gozatu zuten eta baita eskuzabaltasunez erantzun ere, batzuetan kafea eta pattarra, beste batzuetan mokadutxoa, eta denetan dirua emanda. Oraingoan bildutakoa Haitiko lurrikaran izandako kalteei aurre egiten laguntzeko eman zen.

ESKOLAKO HAURREN INAUTERI JAIA

Eskolako haurrek ezin hobeto ospatu zituzten aurten ere inauteriak. Astelehen-inauteri egunean, era

guztietako moztarroak jantzi eta plazan jolasean, dantzan eta kantuan aritu ziren eskolako haurrak, guraso eta irakasleekin batera. Ikasle asko gaixo zeudela-eta, aurtengo antzerki emanaldia otsailaren 24ra atzeratu behar izan zuten. Horrela inauteriak zertxobait luzatu egin ziren Zerainen

ENDIKA ALUSTIZA MEMORIALA

Otsailaren 28an jokatu zen Endika Alustiza zenaren omenezko XVII. bola txapelketa Liztormendi bolatokian. 42 bolariren artean onena Patxi Arrondo aizpearra izan zen 36 birla jota. Haren atzetik Iñaki Maiz eta Andoni Berasategi sailkatu ziren.

SAN ISIDRO EGUNEAN HERRI-BAZKARIA

Iaz berreskuratutako ohiturari jarraituz, aurten ere San Isidro eguna ospatu da Zerainen herri-bazkari eder batekin. Hotzak eta euriak ikaratu ez zituen herritarrak frontoian elkartu ziren umore ederrean.

HERRI BILERA

Ekainaren 22an, herri-bilera egin zen udaletxean iluntzeko 7etan. Guztira 70 lagun inguru elkartu ginen herriko hainbat gairi buruz hitz egiteko.

SAN JOAN BEZPERA

San Joan bezperako suaren inguruko festa, istorio, tradizio eta erritualek



**GURE ESKERRIK
BEROENA
OA KULTUR
ELKARTEAREN
IZENEAN**

***LIZTORMENDI
ELKARTEARI***



San Joan bezperako sua.



Eguraldia puntakoa ez izan arren, jendea animatu zen Mutiloako jaitsierara.



Herri osoa elkartu zen Kontxiren agurreko eta esker oneko festan. Artepeko argazkia historiarako geratu da.

bizirik diraute oraindik ere Zerainen. Horregatik aurtan ere, ekainaren 23an suaren bueltan herri-festa eduki genuen.

MUTILOARA VII. JAITSIERA

Uztailaren 2an, Mutiloako jaien hasieran, zeraindarrak elkarrekin oinez jaitsi ziren festa giroan, musikari ugariz lagundurik Mutiloko sagardo dastaketara.

KONTXIREN AGURREKO FESTA

Azken 27 ikasturteetan herriko irakasle izan den Kontxi Errastik erretiroa hartu duela-eta, agurreko

herri-festa antolatu zen uztailaren 23an. Herriko umeen dantzak, bertsoak eta Uharka abesbatzaren kanten ondoren, merienda eder batekin amaitu zen giro ezin hobeko festa.

ADINEKO JUBILATUEN URTEROKO IRTEERA

Uztailaren 24an, urtero egiten den jubilatuen eskurtsioa egin zen Errioxa aldera. Bazterrak bisitatzeaz gain, ardo ona edan eta otordu ederraz gozatzeko egunpasa ezin hobea eduki zuten.

BAITA ERE

Ekintza hauez guztiez gain, orain arte bezala, joan den urte honetan ere beste hainbat ekintza egin dira:

- * Ingelesko kurtsoak
- * Aste Santuan eta udako oporraldietan haurrentzat aisialdirako jolasak eta tailerrak egin dira.
- * Azaroan ardi afaria egin zen Ostatur antolatuta.
- * Yogako ikastaroa.
- * Argazkilaritzako ikastaroa
- * etab.

JAIOTZAK



Araitx Larrea Salsamendi 2009-7-30



Irati Eguren Retozala 2009-11-10

EZKONTZAK

Aitor Apaolaza Goena
eta
Eliana López Guzmán
2009-4-12

Igor Ojanguren Lasa
eta
Ainhua Katarain Garmendia
2009-6-27

BIZTANLEAK

2009 urte bukaeran Zeraingo zentsoaren arabera 249 biztanle daude bertan erroldatuta, urtean zehar 10 alta, hauetatik 2 jaiotza eta 7 baja izan ondoren.

2009-2010 IKASTURTEKO HERRI-ESKOLAKO HAURRAK

Irenia Apaolaza Kintela
Haizea Foroni Ruiz de Larrinaga
Adur Balerdi Aierbe
Haitz Iturrioz Sodupe
Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe
Ortzi Harreguy Urbiztondo
Unai Eguren Retolaza
Uxue Saez de Egilaz Junkera
Eneritz Iztueta Etxeberria
Itsaso Lazkanoiturburu Alustiza



2009-2010 IKASTURTEKO HAURRESKOLAKO HAURRAK

Nora Iztueta Etxeberria
Harriet Apaolaza Kintela
Araitx Larrea Salsamendi
Irati Eguren Retolaza

MARKOS ALUSTIZAK 100 URTE

Zeraingo Sagastibil baserrian jaio zen Markos 1910eko apirilaren 25ean, beraz aurten 100 urte bete ditu. Gaur egun Beasainen bizi den arren Zeraingo herrian ere gogoan izan dute Markos. Maiatzaren 15ean San Isidro eguneko ospakizunekin batera omenaldi bat egin zitzaion, osasun onez eta itxura ederrean azaldu zen bertan Markos, bere senitartekoekin.


GIPUZKOAKO BOLA TXAPELKETA

Ekainaren 6an haur, gazte, emakume eta beterranoen Gipuzkoako Bola Txapelketa jokatu zen Zeraingo Liztormendi bolatokian. Haurretan Mikel Aranburuk irabazi zuen, gazteetan Lander Ugaldek, emakumeetan Rosa Mari Santosek, beterranoetan German Gereñu, eta eguneko tiraldian ere bera izan zen lehena.

MUGABE

2009ko uztailaren 12an Aralargo San Miguelen bildu ziren lehenengo aldiz Mugabe izena duen jaia, Aralarren bi aldetako herriek, hau da, Goierri eta Sakanakoek. Elkarlanerako hartutako konpromisoa eta jaia da Mugabe izeneko hau.



OTATZA SAGARDOTEGIA
ZERAIN GIPUZKOA
TEL. 943 80 17 57



PIRRITX ETA PORROTXEN BIDEO AURKEZPENA

Pirritx eta Porrotx pailazoen maiatzean Zerainen ibili ziren grabaketa batzuk egiten bertako haur eta helduekin, Zeraingo hainbat leku eta txokotan. Grabaketa hauek, beraiek atera duten DVD batean agertzen dira. Urriaren 23an Zeraingo elizan egin zuten herritar guztientzat, DVD horren aurkezpena. Udalak, Zerainen lagun izendatzen dituen pergaminoa eman zien Pirritx eta Porrotxi, herria ezagutarazteagatik.



TURISMOKO KALITATEAREN ANTZEZLANA

Basketourrek antolatuta, turismoko praktika onen manuala sustatzeko, kale antzerkia egin zuten Zeraingo plazan, urriaren 31an. Trapu zaharrak taldea izan zen ikuskina eman zuena.

EUSKO IKASKUNTZAREN BILERA

Urtean zehar egiten dituzten bi bileretako bat Zerainen egin zuten Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Entografia Saileko arduradunek abenduaren 12an. Bilera haren harira Zeraini buruz urtekari honetan argitaratu den artikulua prestatu zuten.

EGIKOEN BATZARRA

EGI-koek (Eusko Gaztedi Indarra) "EGI eguna Zerainen ospatu zuten, urtero herri desberdinean egiten dute, eta aurten Zerainen egokitu da. Maiatzaren 31an, goizean Iñigo Urkulurekin ekitaldi politikoa izan zuten,



Zeraingo Udala

**OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN
GURE ESKERRIK BEROENA
ZERAINGO UDALARI**



ondoren trikipoteoa eta bazkalostean dantzak, gauean Joseina Etxeberriarekin disko- festa izan zuten.

ZIKLOGENESIA EDO HAIZETEA

Otsailaren 27ko eguna eta ondorengo gauean, haizete handia izan zen Zerainen. Metereologian "ziklogenesia" izenez ezagutzen da haizete bortitz hau. Hainbat etxe eta teilatutan kalteak egin zituen, baina kalterik handienak zuhaitzetan egin zituen, batez ere zurrunbiloak izan ziren lekuetan, pinudi osoak kaltetu zituen.

Elena Mendizabal

MIKEL ORIA BERTSOLARI

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, Goierriko taldeak irabazi zuen aurtan, Irabazleen artean Mikel Oria zeraindarrak kantatu zuen.



MANDIO

TABERNA

Herriko plaza
20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 05

Aurten zer?

2009-2010 ikasturtea atzean utzi dugu eta urtero bezala ikasturtean zehar egindakoaren berri emateko garaia iritsi da.

Gure elkarte 19 lagunez osatuta dago eta bere jarduna koordinatzeko hilean behin egiten dugun bileraz gain, hainbat koordinazio-gunetan parte hartzen dugu ordezkarien bidez: herriko Kultur Etxean, Gipuzkoako eskola txikien koordinakundean eta baita ere, Goierriko eskola txikien koordinazio-gunean.

Ohi bezala, XaguArtea eta Urtekarirako hainbat artikulu idatzi dugu.

Aipatzekoa da bereziki, aurten bi proiektu berezi landu ditugula: euskararen normalkuntza-plana eta zaintza-zerbitzua.

Lehenengoa egiteko hiru bilerako prozesu bat egin dugu 8 guraso eta 2 irakasleren parte-hartzearekin. Herri eskolako euskararen egoeraren diagnostikoa landu eta hurrengo lau urteetarako lan-plangintza osatu dugu guztion artean.

Zaintza-zerbitzuari dagokionez, antolatuta dago irailetik ekainera bitartean martxan egongo den zerbitzu berria. Gurasoen beharrak etengabe aldatzen ari dira, gizartea ere etengabe aldatzen ari delako. Azken 10 urteetan jangela eta haur-eskola zerbitzu berriak martxan jarri dira eta oraingo behar berriei erantzuteko, eskola hasi aurretik eta ondoren, begirale bat egongo da hala nahi duten gurasoen haurrak zaintzeko. Zerbitzu berri hau antolatzeko eskolako ordutegia egokitu da, eta ondorioz, hurrengo ikasturtean eskola goizeko 9:00etan hasiko da. Begirale- lanetan Nekane Alustiza arituko da.

Aurten ere, urtero bezala, gurasoak eta haurrak elkarrekin irteerak eta bestelako ekintzak egin ditugu:

Udazkenean, herria hobeto ezagutzeko asmoarekin mugarriak ikusteko lehen irteera egin genuen Joxe Manuel gidari moduan hartuta. Segura eta Mutiloarekin ditugun



Herria hobeto ezagutzeko mugarriak ikusteko irteerak egin ditugu.

mugarriak ezagutzeko aukera paregabea izan genuen.

Ohikoa bihurtu zaigun talo-jana gaztainerekin negua hasi baino lehen ospatu genuen, aurten gaztainak biltzeko aukerarik gabe eguraldi txarra egin zuelako.

Urtero bezala, Tolosako Nazioarteko txotxongilo-jaialdian emanaldi polit-polita ikusi genuen.

Aspaldiko eskaera bati erantzunez, azaroan hasi eta 10 bat astez, arin-arina eta fandangoa ikasteko ikastaro labur bat antolatu genuen elkarte bazkide eta bazkide ohientzat.

Neguan, urtero bezalaxe, aurten ere haur, irakasle eta gurasoek Gabonetako kantak abestu genituen baserri eta kaskoko etxeetan.

Udaberrian, mugarrien bigarren irteera egin genuen Legazpirekin ditugun mugarriak ezagutzeko. Hirugarren irteera bat beharko dugu Zegamarekin ditugun mugarriak ezagutu ahal izateko, eta hori, datorren ikasturtean egitea espero dugu.

Arkumea dastatzeko gurasoen bazkaria egin genuen martxoaren 27an, goxoa benetan!

Euskal dantza ikastaro laburra antolatu genuen herriko txikientzat

maiatza- ekaina bitartean San Joanetako dantzak prestatzeko.

Goierriko eskola txikien festa antolatu eta egin genuen, Gabiria, Itsasondo, Olaberriako eta Zeraingo

167 haur eta gurasok parte hartu genuen aipatutako festan. Autobusez Urnietara joan-etorri, eta bertan, Pirritx eta Porrotxen Irriaren lagunak DVDaren grabaketan parte hartu genuen. Egun osoko festa izan zen eta denok gustura bueltatu ginen nahiko kantatu eta dantza egin ondoren.

Ekaina hasieran Altzora joan ginen egun-pasa Gipuzkoako eskola txikien festara.

Aurten ere, San Joan bezperako ospakizunean parte hartu genuen.

Udan ikasturte amaierako irteera Donostiara programatuta genuen arren, bertan behera utzi behar izan genuen eguraldi txarrarengatik.

Udaleku irekiak antolatu ditugu beste urte batez Kultur Etxearekin batera. Udaleku irekiak ekainaren 30etik uztailearen 30era bitartean izan dira goizetan bi orduz. 12 urte arteko haur guztiek parte hartu dute eta begirale-lanetan Nahikari, Olatz, Iñaki, Laida eta Ainhoa ibili dira.

Uztailean Andereño Kontxiren omenaldian parte hartu dugu eta ikasturteari agur esateko, afaria egin



Herria hobeto ezagutzeko mugarriak ikusteko irteerak egin ditugu.

dugu Ostatu tabernan.

Ikasturtea azkarregi pasatu da... egin nahi genituen ekintza batzuk egiteko denborarik ez dugu izan, hori dela eta, udazkenerako bi hitzordu lotuta ditugu dagoeneko:

Gamusinoen bila eta Bartzelonara txangoa.

Irailaren 25ean herrian zehar Gamusinoen bila joateko asmoa daukagu Porrotx gure lagunarekin eta urriaren 9tik 12ra Bartzelonara

joango gara asteburu pasa.

Irailan asmo berriekin berriro jarriko da guraso-elkartea martxan, bitartean segi bizkor!

Arantxa Ruiz de Larrinaga

Batzuk joan eta besteak etorri



Aurtengo ikasturtean hiru izango dira elkarte utziko duten gurasoak: Luisa, Nico eta Aran. Luisak 2001etik aurrera parte hartu du elkartearen eta Nicok eta Aranek 1998tik. Beraiei elkartearen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu bertan emandako urteetan egindako ekarpenagatik eta jarritako ilusioarengatik.

Fundazioan urtea bete lan

Zerain Dezagun Fundazioak 2009-2010 urtean zehar burutu dituen lan nabarmenenak biltzen dira txosten honetan. Fundazio honen helburu nagusia Zeraingo herriaren etorkizun sozio-ekonomikoa lantzea da eta lan hauek guztiak norabide horretara bideratuta osatu dira.

Iraunkortasuna da gure proiektuaren beste zutabe garrantzitsua. Ez dago benetako etorkizunik baldin eta iraunkortasunean txertatzen ez bada. Iraunkortasunaren ikuspegi berritzaileenari eusten diogu guk eta "ekosistemaren emaria" deitzen zaio bide honi. Honela, geure ingurumeneko paisaia kulturala edo zeraindarrok milaka urtetan osatu dugun ekosistema, geure lehena, oraina eta etorkizuneko bizimoduaren oinarri, nahitaezko oinarri, gisara aitortzen dugu. Aitortza honek gerora ere izango garen guztia ekosistema horren emariari zor diogula jasotzen du eta gure ingurumenarekiko lotura eta konpromisoa bermatzea dakar. Honela urteetarako lan ildo nagusi gisara, geurea dugun ingurumen aparta zaindu eta hobetzen saiatzea ezarri dugu.

Oinarri hauek funts harturik honako lan nagusi hauek burutu ditugu azken urteon honetan:

1.- BURDINAREN MENDIA - AIZPEAKO MEATEGIETAKO MULTZO MONUMENTALA.

2008an Burdinaren Mendian irekitako Aizpitta Adieraztegiaren aldamenean, 2009ko martxoan "Polborina" galeria berreskuratu eta bisitetarako ireki zen. Burdinaren Mendi osoa ezagutzeko ibilbide seinaleztatuak bisitaldiaren osagarri dira

2009an, lantoki nagusiko goiko aldeko mea-biltegia zaharberritu ondoren, meatze barrutiko Alemanen trenbidea martxan jartzeko lanekin hasi gara. Proiektua egin eta

hasierako lanak, plataforma berdintzea, urak bideratzea, Makinetxe sendotzea edo indartzea etab. dira.

Era berean, mendi honetan lur sailak erosteko eta ingurumena berritzeko eta hobetzeko lanak sustatu dira. Lan hauetako nagusiak, pinudiak erantsi eta ateratzea, garbiketa lanak egitea eta berezko bertako espezieak aldatzea eta hauek zaintzea dira. Lur sailak erosi ditu herriak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren laguntzarekin. Lan honek datozen urteetan jarraipena izango duelakoan gaude.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi ikerketa eta indusketa arkeologikoak. 2009-2010ean, tailer nagusiaren lantegi zaharra industu da, eta emaitza politak jaso dira. Hurrengo urteetara begira, lan hauek Aizpeako meategi hauen funtzionamendua azaltzen lagunduko digute.

2.- IBILBIDEAK

Herriko ingurumena ezagutzeko aukera emango duen ibilbide sarea lantzen hasi gara. GIOMEN Goierriko Landa Garapenerako elkartearen laguntza izan dugu.

Zeraingo inguru paregabearen

baitan, ibilbide sorta berri bat prantatu nahi da bisitari eta herritarren eskuera, udalerrian zehar bertako botanika azalduko duten bost ibilbide osatuz. Botanika ibilbide berri hauek, etnobotanikaren interpretazioa izango dute ardatz; gure kulturen bertako landarediaren usadiozko erabilpena azalduz eta jendartera zabalduz.

Ibilbide bakoitzean, gai nagusi bati lotutako landaredia bildu eta zabalduko da, eta hauen ezaugarri nagusiak azaltzeaz gain, aipatu alderdi etnobotanikoa landuko duen aparteko euskarri bat ere osatuz: mapa, plano eta eskuliburu txiki bat (gune bakoitzeko botanika adieraziko duen fitxer osatuta)

Ibilbideak, udalerriko puntu ezberdinetatik abiatuko dira eta garai bateko bide zaharrak eta gaur egungoak lotuz bideratuko dira. Honetarako, hainbat bide berri ere ireki da: Burgomendikoa eta Araneko artegitik meategietaraino doan bidea.

Luzera eta malden arabera, mendi federakuntzak SL (herri ibilbideak) eta PR (ibilbide motzak) bezala izendatzen dituen sailkapenean barneratzea proposatzen da. Honela, homologatutako seinaleztapen



Basquetour-eko zuzendari Ana Izagirre bisitan.



Aurten argitaratutako liburuxka eta foiletoak.

kodeekin markatuko dira eta federakuntzak sustatzen dituen ibilbide sareetan barneratu ahal izango dira.

3.- ARANZADIREN AZTERKETA LANA

Aizpeako meategia Aizkorri Aratz Parke naturalaren barruan dago. Bertako biodibertsitatea kontserbatu ahal izateko, gunea bere osotasunean kudeatzea ezinbestekoa da. Horretarako eremuko diagnosia egin ondoren, kudeaketa plana landu da Aranzadi zientzia elkartearekin.

Biologo talde bat ibili da eremuaren azterketa egiten eta etorkizunera begira landu beharreko hainbat gai zehaztu dira: Landaretza eta baso autoktonoak, hezeguneak, saguzaharrak...

Lan hauek egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren Parke Naturaletako laguntza jaso du Zeraingo Udalak.

4.- BIOMASAREN AZTERKETA

Beizamako Udalarekin elkarlanean bi herrietako basoetako etorkizuna lantzeko, Biomاسaren azterketa bat

egin da. Honekin batera, gerora herrietako etxeak eta eraikuntza publikoak berotzeko bertako energia hau, biomasaren energia, erabiltzeko aurreproiektuak egin dira. Proiektu hau Proiektu Aitzindari gisa izendatu zuen Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza Sailak eta baita diruz lagundu ere. Lan hauek 2010eko lehen hiruhilekoan amaitu dira.

5.- ENERGIA KONTSUMOA

Eraikuntza publikoetako energia kontsumoa ezagutu eta ahal den neurrian aurrezteko proiektu baten barruan, kontsumo hauek neurtu eta monitorizatzeko makinak ezarri dira Hariztierdi aterpetxean, Aizpitta Adieraztegian eta Kultur etxean. Lan hau EUDELekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz burutzen ari da. 2010 urtean amaituko da.

6.- AZOKA

2009ko irailaren 20an, urtero gisan, herritarren auzolanari esker eta Gipuzkoako Biolur elkartearekin elkarlanean, Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren XV. azoka egin zen.

7.- SAN BLASEN AFARIA

Herriaren alde lanean ari diren zeraindar eta kanpotarren ohorez



Zerain nekazaritzari lotuta bizi izan den herria da. Etorkizunerako proiektua ZERAIN PARKE KULTURALA da.

Zerain Parke Kulturala

HERRI MUSEOA. Herriko bizimodu eta ohiturak
1711.KO KARTZELA.

LARRAONDOKO ZERRATEGIA. Uraren indarra XIX. M.
AIZPEAKO MEATEGIAK. Burdinaren ustiapenaren garapen

MANDIOA DENDA. Herriko produktuak eta artisautza
HARIZTIERDI ATERPETXEA.

www.zerain.com

Zeraingo turismo bulegoa
Herriko plaza, z/g.
20214 ZERAIN
Tel. 943 80 15 05
Faxa 943 80 16 06
turismobulegoa@zerain.com

urtero otordu berezi bat antolatzen du Zerain Dezagun Fundazioak udazkenean, San Blas ermitan. Bertan Ohorezko Zerainen Lagunak izendatzen dira Fundazioaren eskutik. 2009ko urrian, Joxemari Telleria herriaren alde egindako lanagatik eta herriko hainbat bolari, Antonio Alustiza, Luis Aizpeolea eta Jabier Aizpeolea, herrian bolatea eusteko egin duten lana eskertuz Zerainen lagun izendatu ziren.

8.- HITZALDI ETA BISITAK

Fundazioak sustatzen duen lana dela eta, han-hemenka hitzaldi, jardunaldi eta abar ugaritan Zeraingo herria egiten ari den lana azalduz parte hartu da: Espainiako Gobernuo Nekazaritza Ministerioak gonbidatuta, Santanderren burutzen den Universidad Internacional Menéndez Pelayo deritzoneko "Medio Ambiente y Desarrollo

Sostenible: diálogos entre la teoría y la práctica" ikastaroan; EHU-UPV eta Eusko Ikaskuntzak elkarlanean Donostian antolatzen duten Agenda 21eko udal-kudeatzaileen masterrean; Portugalen Green Institute-k antolatutako "Ondarea eta Iraunkortasuna" kongresuan Zeraingo adibidea azaldu da, honetarako Ameriketako Estatu Batuetako Masachusetseko Amhersteko Unibertsitateko Antropologia saileko Europako Gaietako zuzendari Jackeline Urlak prestatu du txostena eta aurkezpena ere berak egin du (Txostena kongresuko beste guztiekin batera argitaratua izan da, ingelesez); Katalunian "Institut per al Desenvolupament i la Promoció de l'Alt Pirineu i Aran" institutuak antolatuta Pirinioetako garapen ekonomikorako 2. jardunaldietan eta Fundació Catalunya Europa eta

Fundació del Món Rural bien artean antolatuta Castell de Castellet i la Gornalen antolatutako "Landagunean lanpostuak eta ekintzailatza sustatzeko Europako praktika onak" jardunaldian, etab.

Bestalde, gure proiektua ezagutzeko asmoz herrian bisitan izan ditugu: Kataluniako Generalitateko Kultura Saileko "Centre de Promoció de la Cultura Popular i Tradicional Catalana"-ko zuzendaria herri hartako hainbat museotako teknkari, zuzendari eta abarrekin, Berastegiko udalekoak, Lekunberriko udalekoak, Berriatuako udalekoak, Eusko Jaurlaritzako Kultura saileko Antonio Rivera sailburu ordea, Basquetoureko zuzendari Ana Izagirre, etab.

Jakoba Errekondo
Aitziber Makazaga

TURISMO BULEGOA

Turismo bulegoak, azken urteetan bisitariei harrera egiteaz gain, beste hainbat proiektu landu ditu.

- Burdinaren Mendia bisitarien gida: Aizpeako meategietako informazio orokorra agertzen da. Gaur egungo argazkiak, irudiak, mapak, argazki zaharrak, etab-ez baliatu gara gida hau diseinatzerako garaian.

- Artzaintza eta gaztagintza: Idiazabal gaztak eta artzaintzak duen garrantziaz oharturik Burdinaren Mendiko bisita gidari jarraipena emanez bigarren bisitarien gida diseinatu eta argitaratu da. Honekin batera Goierriko artzainen laguntzarekin, artzaintza eta gaztagintzaren inguruko ikus entzunezko bat prestatu da.

- Liburuxka: Zeraingo foileto berria argitaratu da euskaraz, gazteleraz, ingelesez, katalanez eta frantsesez.

- Zerain.com web gunea berritzen hasi gara eta horretan dihardugu. Egun, sare sozialak hartzen hari diren garrantziaz oharturik hauetara egokitu dugu web gunea beste hainbat atal berriekin batera.



Lan hauekin jarraituz, hurrengo urteetara begira argitalpen berriekin lanean jarraituko dugu. Bidean dira Bolatea eta Larraondoko zerrategiaren inguruko beste bi bisitarien gida. Web gunearrekin berriz, lanean jarraitzeko asmoa dugu atal berriak sartuz.

Lan hauen koordinazio lanak Aldabe Kooperatiba Elkarteak egin ditu.



Aldasoroko familia XX. mende hasieran.



Aldasoroko Joxe Mari eta Marta 1925 inguruan.



Eskortako Tomasa Telleria 1940 inguruan.



Antsostegiko familia XX. mende hasieran.



Araneko familia XX. mende hasieran.



Serorategiko Antxelma plazan.



Ganbaratxoko Balentina 1970 inguruan.



1940 urte inguruko Zeraingo gazteen lagun artea.



1940 inguruan Mendi Behekoko familia.



Araneko Pedro eta Eskortako Gregori Urbian 1950 inguruan.



Arantzazuko Amabirjina Zeraina ekarri zenekoa 1956an.

2009. urtean, Oa Kulturako herritar talde bat etxe biltzen aritu zen. Guztira ditugu zeraindarrok. A digitalizatu eta Udaleko Urtekari honen orrialde horietako batzuk azaltzen



Kozmendiko Jose Antonio eta Milagros osaba ilobak.



Ostatu aurrean gazte koadrila soinu-jotzaile eta guzti 1956ko inauteritan.



Herriko gazteak bizikletan paseoan ibilita 1940 inguruan.

ur Elkarteak sustatuta,
z etxe argazki zaharrak
mila argazkitik gora utzi
Argazki horiek guztiak
o artxiboan gorde dira.
nauetan, jasotako argazki
n dira.



Andramaritako prozesioa plazan 1960 inguruan.



Andramaritako txirrindulari lasterketako lehena plazara iristen 1965ean.



Telleri baserriaren aurrean, auzoko umeak 1966 inguruan.



Plazako arte zaharra 1969ko otsailean erori zeneko argazkia.



Urbian Zeraingo neska gazteak 1968an.



Mendi Beheko eta Barbariko lehengusuak plazako eskaileretan. 1960



Zeraingo errumesak Urbian 1965ean.

Zeraingo burdinazko paisaiak eta Aizpeako labeak: garai bateko aztarna berreskuratuak

*Isusko Vivas Ziarrusta **

«Berreskuratutako edo berreskuratze bidean diren Gipuzkoako garai bateko industriaren, burdinolen, papergintzaren, arrantzaren, erroten eta trenbideen hondakinak XXI. mendean ikustean, historiarekin ez ezik etorkizun oparoagoaren bila alde batera utzitako tximinia, dorre, uhate, errail eta gainerakoen jabe egin den naturarekin ere egiten du topo bidaiariak» (Begoña del Teso)

* Eusko Ikaskuntza
Antropologia-Etnografia Saila

1. SARRERA. EUSKO IKASKUNTZAREN ATAL ZIENTIFIKOEN TXANDAKAKO BILERAK DIRELA ETA

Sortu eta handik 60 urtera Eusko Ikaskuntzak berriro bideari ekin ondoren, Euskal Herria ahalik eta ikuspegi gehienetatik aztertzeko asmoz betiere, elkartearen barne-organigramako zientzia-sailak indartzeak, ilusioz ikusten ziren beste zenbait ekimenen artean, Euskal Herriko zenbait bazterretako jendearen interes indibidualak eta kolektiboak bildu eta lotzeko beharra ekarri zuen, jakintza-alor zehatz batzuen arabera agian. Hartara, ezagutzan, azterketan eta ikerkuntzan oinarritutako bere funtsezko eta jatorrizko espirituarekin bat zetozen helburuak betetzen eta erro sakonak zituen erakunde horretara bazkide gisa atxikitze aukera eman zitzairen pertsona horiei.

Saiakera hari esker, zientzia-sailen berrantolatzeak

kultura eta lurralde bateko partaide sentitzeko aukera ekarri zuen batik bat, fisikoki ere ezagutu eta berrezagutu (zilegi bekik errepikapena) beharreko gure lurralde honetako alegia.. Horren alde aritu zen buru-belarri Antropologia-Etnografia Saila; finean, humanismoari lotutako gaiek horretan dihardutenei sortutako jakin-minak bultzatuta hartutako erabakia izan zen. Handik aurrera, sail horren ohiko bilera "ibiltariak" Euskal Herriko lurralde- eta kultura-testuinguru jakin horietara gerturatzeko hainbat bide ireki dira, betiere gure erakundeari batera irabazi-asmorik gabe lagundu dioten bazkideei eta udaletxeetan, kultura-etxeetan, liburutegietan, museoetan eta abarretan eskuzabal hartu gaituzten herriei esker, etab.)¹

Euskal Herriko ondare material nahiz ez-materialaren



Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografia Saileko bilerako partaideak eta udaleko ordezkariak Zerainen.

¹ Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Zeraingo Udalarari egin zigun harrera ezin hobeagatik, baita Antropologia-Etnografia Saileko Fermin Leizaola bazkideari ere, bisita antolatzeak egindako ahaleginagatik.

ikerikuntza-zabalkundeak laburbiltzen ditu -zenbait adieratan eta adierazteko modu berezitan- Antropologia-Etnografia Sailak egun dituen helburu nagusiak: mendielkarte tradizionalak, Kantauriko itsasertzeko kultura bizia, hirietako antropologia eta globalizazioak geopolitikan, gizartean, kulturen eta harremanetan eragindako aldaketak... Erakundeko bazkideek gaika edo gai jakin baten gainean egiten dituzten aldizkako jardunaldietan eta, batik bat, ahalik eta erregularitasun handienarekin argitaratzen saiatzen diren *Zainak* zientzia-eta ikerikuntza-aldizkarian bakarka edo taldeka egiten dituzten ikerketetan ikusten da hori.

Bereizgarri dugun txandakatze-ohiturari jarraiki, 2009ko abendu bileraren harira Zeraina (Gipuzkoa) egin genuen bisita erabat baliagarria izan zela deritzogu, Gipuzkoako herri txiki baten aukera eta ahalmenak zenbaterainokoak diren jabetzen lagundu baitzigun. Iraganetik jasotako ondarearen ezaugarriak mantentzen jakin du Zerainek, hainbat ibilbide sustatuz. Horrez gain, aberastasun-iturri eta kultura-ondare gisa gordeta dituen aspaldiko oroigarriak eta eguneratutako eta berritutako nortasun-ikurrak ere zaindu ditu. Zerainen kasua -esanguratsuak diren beste batzuen artean- paradigmatikoa da, herri txikia izaki gauzak egiteko eta ondare materiala babesteko izan duen moduagatik. Garai bateko bizimodua egiantz handiz berreskuratu eta birsortu dute zeraindarrek, egun saihestezinak diren jasangarritasun-betebeharrak eta turismorako erakargarritasuna kontuan harturik betiere.

2. GIPUZKOA BARNEKO ONDARE INDUSTRIAL ETA INDUSTRIAUERREKO ABERATSA

Ibaizabal-Nerbioiren itsasadarreko meatze eta siderometalurgiaren gehiegizko ustiaketek eraldatutako paisaia zabal eta arketipikoetatik eta horren ezauna ez den garai bateko Bizkaia langilek (Trianoko mendiak, Peñas Negras, meatzari-herriak...) urrunduz, Gipuzkoako burdinaren paisaia ezkontuak lekuko adierazgarri gisa bistaratzen zaizkigu. Izan ere, itsasertzetik hasi eta barneko mendilerroetaraino bere arrastoa uzten duten hainbat txoko eta bidezidorren bilduma zabala utzi digute oinordetzan, mendeen iragaiteak ezarritako isiltasunaren gainetik. Zarauzko Mollarriko zama-lekuek (trenbidearen eta buian ainguratutako itsasontziak zamatze Asteasutik -Ernio mendiaren magaletatik- zetozen aireko trenen amaiera-puntuaren arteko "bisagrak") eta are irmoago dagoen Gipuzkoako Ainguren Errege Fabrikak utziak -1750etik, tamaina handiko aingurak eraiki zituen- itsas baliabideei lotutako kultura islatzen dute, barnealdeko bizi-baliabideekin bateragarria. Gure arbasoen garaiko bizimoduari loturiko ikur esanguratsuak iritsi zaizkigu; esaterako, Aiako Agorregi eta Beasaingo Igartza burdinola-errotak, Udanako labeak eta Mirandaolako burdinola Legazpin, Oiartzungo Olaberria eta Zestoako Altzolaraz burdinolak edota Zeraingo burdin mendia.² -Azkena aipatu dugun horren ibilbidea luze eta zabalago aztertuko dugu. Horiek baino geroagoak dira, bestalde, zenbait ekoizpen- edo garraio-eraikuntza, hala nola Bergarako Labe Garaiak (1901) eta Ormaizteigiko zubia, zeina 1995era arte erabili baitzen.

Lehengaien erauzketaguneek beti izan dute harreman estua mekanismoetarako behar ziren erregai edo indar eragileak lortzeko baliabideekin, eta ederki erakusten dute nola aprobetxatzen zituzten gizakiek lehengaiak,

² Egurrak herrian izandako garrantziaren beste ikur bat Larraondoko zerrategi hidraulikoa da, errekatxo baten ondoan XIX. mendean eraikitakoa.



**ETXAIDE
ERAIKUNTZAK, S.A.**

Araba Etorbidea, 5.blokea
Tel: 943 65 31 86

TOLOSA



Zeraingo industria-ondarea.

inguruaren zailtasunak gorabehera. Horren erakusgarri da haizeolek (material erregogorrez egindako errekontza-labeak³ zituzten haizezko burdinolak, mineral purutik zepa bereizteko erabiltzen zirenak) euskal mendietako industriaurreko kokaleku garrantzitsuenetako bat hartu izana. Haien lagungarri ziren kota baxuetan barreiatutako bailara urriak eta aldapetatik zetozen erreka toten ur-emariak, ibilbide motzekoak baina emari handikoak. Lursail horiek ez zuten balio presa, ubide eta aldaparoetarako (tuneletik zintzilik jartzen zen hondo lau ko putzua). Horri guztiari esker bermatzen zen mekanismo pisutsu haiek (errotarriak eta gabia, Erdi Arotik Europan aberastasun ekonomikoaren iturri eta metalurgia goiztiarraren adierazle) mugiarazteko adinako energia eragile hidrauliko jarraitua. Errotarriak - aurrerapen tekniko izugarria - mugimendua lan-mota askotara eraldatzen zuen: ehotze prozesurako, mendiko burdinolekako ingudearen sinkronizaziorako eta hauspo erraldoien bitartez errekontzari oxigenoa emateko.

Herritarrek landutako paisaia horiek guztiek gizartearen egituraketa ulertzen laguntzen digute, erreferentzia estetiko eta arkitektura eta ingeniariatzako bitxikeriez jositako inguruneen balioa eta ikusmira eskaintzeaz gain, betiere ekoizpen-baliabideak



Kiskaltze-labeak, Aizoean.

ordenatzeko premisa materialista jakinetan oinarriturik eta, noski, horrek kulturaren erreprodukzioan dituen ondorioak aintzat harturik. Errota edo burdinola baten kokagunea unitate ekonomiko baten adibide izaten zen; euskal baserriarena, esaterako. Unitate horren jabetza tokiko nobleziako jauntxoek, koroak edota eliza katolikoak izaten zuten, nahiz eta gero jarduera horretatik (burdina lantzetik) bizi ziren familiei errentan eman maiz. Era berean, familia horiek lana egiteko langileak

³ Zepadien lepoetan metal-aztarnategi ugari dago.



Zutik iraun duten labeen itxura eta xehetasunak.

kontratatzan zituzten. Tailerra, etxebizitza, fabrikatutako produktuen biltegia, uharka, ikaztegiak, elikagai-gordailua eta erlijio-gurtzarako eliza, kapera edo ermita eraikin bereko unitateak izateraino iritsi ohi zen, zenbaitetan, autosufizientzia. Makalaldiak eta susperraldiak izaten zituzten, eta azpiegitura berriak lehengo eraikin eta hondarren gainean eraikitzen ziren. Horren adibide dira Erdi Arotik Ilustrazio garaia arteko hainbat berreraikuntza ikusgarri.

Erregimen Zaharraren erorketarekin, ahaztu eta desagertu egin ziren aipatutako ekoizpen-motak, batik bat industria- eta teknologia-iraultzaren garaian egoera aldatu zenean. Horrek eragin handia izan zuen Euskal Herriko hainbat eremutan; izan ere, baliteke Europan garai hartan burdinola gehien zituen eskualdea izatea gurea. Hala eta guztiz, beste enpresa-parametro batzuetan bada ere, badira instalazioak berrituz irautea lortu duten kasu batzuk -Zerain, adibidez-, erauzketak indarrean

ANAIK GARAJEA



MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa // Tfnoa.: 943 18 74 83 // IDIAZABAL



Hargintzako zeharkako planoak eta burdinazko habeak zamaketa-lekuan.

jarraitzeari, kalitatezkoak izateari eta ez agortzeari esker, batetik, eta makineriaren bideragarritasunagatik, bestetik,. Zaharkidura eta bazterketatik atera eta gero, ondare aberats horri behar bezalako balioa emateko modu bat "museo-leku" eta erakustoki bilakatzea izan da, edo, bestela, garai batean bezala, irina, papera edo ehuna egiteko industria industria-jardueraren bat sortzea.

3. ZERAIN: GIPUZKOAKO KULTURA-ONDAREAREN BIRGAITZE JASANGARRIAREN ETA KUDEAKETA ERAGINKORAREN EREDU

XIX. mendearen bukaeran, The Cerain Iron Ore Company LTD korporazioak Zeraingo eta Goierriko meatze-ustiapena bereganatu zuen eta oraindik ere mendi-magaletan dirauten Aizpeako labeak eraikitzeaz gain, airetiko kable-sare handi bat, bagonetentzako ibilbideak eta meatzeetako burdinbideak ere eraiki zituen.

Gizakiak metala eraldatzeari ekin zioneko lehen aztarnak oso aspaldikoak diren arren -herri zelten eta erromatarren garaikoak-, XI. mende inguruan lehen gailu mugikorrek Zeraingo burdinazko mendietan egindako garbiketa erakusten digute. Hainbat gorabehera historikoren artean, labeek lanean jardun zuten 1951ra arte. Bitarte



Meatze-ahoen barnealdeko hasierako metroak.



Zeraingo Burdinaren Mendiaren Museoa eta Interpretazio Zentroa, eta Eusko Ikaskuntzako partaide batzuk.

horretan, gerrek eta bestelako gertakizunek kalteak eragin zituzten hango eraikin-multzoan 1950eko hamarkadara arte. Orduan atzeman zen, egiazki, materialaren errentagarritasun eta lehiakortasun eskasa. Hori zela eta, inportazioari ekin zitzaion eta, ofizialki, itxi egin ziren meatzeak, nahiz eta erauzketekin hurrengo hamarkadaren hasierara arte jarraitu. Une hartan, Zeraingo eta inguruko herritarrek Gipuzkoako fabrika handietara jo behar izan zuten lan bila. Mende bat lehenago (1856) sortutako La Unión de Cerain, Pasaiaiko portura eta handik Europa osora burdina eramaten zuen konpainia, eta meatzeetako ustiapen berri hura hasi izana oroitzapen hutsean gelditu ziren.

Garaiazen arabera, Aizpeako meatzean 10 eta 150 langileren artean aritu ziren lanean (baita 173 ere, 1907an); horiez gain, soldaduak, soldaduska egiten ari ziren gazteak eta presoak ere bai karlistada-garaietan. Peoietatik hasi eta idazkari eta ingeniarietarainoko ardura-eskalan, espezialistak (artillariak, harri-zulatzailak, makinistak, mantenuaz arduratzen zirenak, etab.) ziren gehienak. Minerala garbitzeaz arduratzen ziren emakumezkoak ere baziren, eta gizonezkoek baino soldata txikiagoa izan ohi zuten. Esandako guztiaren osagarri, aipatzekoa da erregai gisa erabiltzen zen egur-ikatza haritz- eta pago-baso sarrietako adarretatik ateratzen zutela. "Txondor" deitzen zitzaion adar eta zuhaitzez eginiko piloari. Egurra prentsatu eta estali ondoren, barnealdeari su ematen zitzaion, goialdeko ertz batean makila bertikal batekin egindako zulo batetik. Kiskaltze horretatik sortzen zen hondakina animaliek garraiatzen zuten labe-ahotaraino.

Beraz, itxuraz nekazaritzari, abeltzaintzari eta artzaintzari soilik lotutako kultura zirudien horretan antropologikoki saihestezina den bilakaera izan du meatzaritzak. Bestalde, ordea, ezin egokiago asmatu zuen meatzerako erauzketa-lanak nekazaritzarako eta uzt

biltzeko aproposenak ez ziren urte sasoian egiten. Halako loturek egutegian ere bazuten islarik; esaterako, Santa Barbara egunean (meatzarien patroia). Zeraingo meatze-giroak, biztanleriaren gorakada nabarmenez gain, meatzari batzuek meatzeko jardunaren ondoren laborantzan aritzea ere ekarri zuen. Horren ordainetan izaten zuten ostatua eta mantenua baserrietan.

Egun, Aratz-Aizkorri Parke Naturaleko mendiguneko basoetako landaredia eta mendi-arkitektura nabarmentzen dira ingurune horretako paisaian. Aizpeako kiskaltze-labeek "harrizko mamu-perretxikuak" dirudite, Begoña del Tesoren hitzetan, kono-enbor formako profil eta karbonato ferrikoarentzako 9 barrunbeekin eta partzialki berrezarritako meatze-aho eta zero irekira begira hondeatutako tunelekin. Aizpittako Interpretazio Zentroak sobera asetzen ditu bisitariaren iguripenak. Ongi zuzendutako museo-egitarauaz gain, haren diseinu egokiak beste hau ere eskaintzen du: erreminta-erakusketa bat, informazio-panel interaktiboak, hainbat mineral-klase eta -motaren laginak, eta horren ohikoa ez den ikus-entzunezko proiektzio bat.

Zeraingo kulturen eta ondarean barrena egin dugun ibilbide honek hausnarketa hau eragin digu: kulturak, naturak, industriak, klimak, topografiak eta paisaiak ingurune bereziak sortu dituzte Euskal Herriko kostaldearen eta mendialdearen arteko orografian. Gaur egun, eraldaketa soziopolitiko eta ekonomikoek izugarritzko eragina dute hirietan eta haien sakabanatzea eragiten dute, erdigunetik aldirietarako aldaketa. Hori dela eta, erronka handiak ditu Euskal Herriak XXI. mendean. Mugako herria izaki, egoera onean gaude gure gizarte-egiturei alde askotatik eragiten dieten desfioei ekiteko, eta, bidenabar, gure aurreko kultura- eta nortasun-adierazleak ulertu, birmoldatu, suspertu eta gordetzeko.

M. Ibañezek, A. Santanak eta M. Zabalak aipatzen

gutenez, industria-ondareari sinbolo-kategoria ematen dioten bi ezaugarri daudela zioen Diane Newellek 1985ean: historikoa eta kulturala. Gutxi edo gehiago iragandako eta behin eta berriz ahanzturatik berreskuratzen saiatzen garen "lehenaldi" horren ikur gisa agertzen omen dira ezaugarri horiek "euskarri ikonografikoan", eta, horrekin batera "tinpano erromaniko batek helarazten dizkigun irudien korolariora eta kontzeptuak" irudikatzen dituzten bat-bateko mezuak Honenbestez, garai bateko sinbolo gisara ageri zaigu gaur egun ondare industrialak:

Industria-prozesuko aztarna materialak dokumentu biziak dira; beraz, gure kulturako beste elementu batzuei ematen zaien ondare-kategoria bera eman behar zaie. Dokumentu hauek interpretatzea iragana ulertzeko urrats bat ematea da; mantentzea, berriz, kalitateak edo balioak hala eskatzen duenean, egungo gizartearen nahitazko erantzukizuna.

BIBLIOGRAFIA

- AROCENA, F. "La industria del hierro en Guipúzcoa a mediados del siglo XVIII": Yakintza. Euskal Kulturaren Aldizkaria, Bilbo: 1977.
- ZERAINGO UDALA Burdinaren Mendia. Zerain Parke Kulturala (bisitarien gida), Zeraingo Udala (Turismo Bulegoa), d/g., 25. or.
- BUSTINDUY, N. La industria guipuzcoana en fin de

siglo, Donostia: 1894.

- DEL TESO, Begoña. "Ingenios de musgo y salitre (Guipúzcoa)": GPS, 'Patrimonio Industrial', 2009ko azaroaren 20tik-26ra, 4-12 or.

- HERRERAS, Beatriz; ZALDUA, Josune. "Paisaje y patrimonio industrial en la costa vasca": Itsas memoria. Euskal Herriko Itsas Ikerkuntzen Aldizkaria (Itsas ondarea), Donostia Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2009, 305.or.

- IBAÑEZ, Maite; SANTANA, Alberto; ZABALA, Marta. Arqueología industrial en Guipúzcoa, Bilbao: Universidad de Deusto, 1993.

- OLAIZOLA, J. J. "Ferrocarriles y valles en Guipúzcoa": Ibaia eta Haranak (I. liburukia), Donostia: 1989.

- URTEAGA, M. "Ferrerías en Gipuzkoa. El río como fuente de aprovechamiento energético": Ibaia eta Haranak (I. liburukia), Donostia: 1989.

- URTEAGA, M. (arg). Agorregiko burdinola eta errotak (Aia, Gipuzkoa). Arkeologia 3, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura Saila, Euskara, Gazteria eta Kirola, d/g

- ZABALA, Marta. "Ferrerías-museo. Patrimonio y difusión de la siderurgia tradicional vasca": RIEV (Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria), 52-1 liburukia, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007, 287-302 or.



ARANBURU HARATEGIA

bertako haragi, txorixo eta
odolkietan adituak

Kale Nagusia, 34. SEGURA

Tel.: 943 80 10 14

Sareko Zerain-ak

Elixabete Garmendia

Interneten Zerain izenarekin kuxkuxean hasi eta zer ez dugun topatu: aktore bat, idazleak, musikariak... eta herri bat, non eta Guam uhartean, ia ia antipodan. Herriaren izenak izan ugari dituela, ezustekoak gainera.

Bilatzen hasi eta Googlek 622.000 inguru sarrera eskaintzen ditu Zerainekin; Cerain idatzita berriz, 61.000 gutxi gora behera. Grafia batekin zein bestearekin, herriari buruzko kontuak ateratzen dira lehenengo, eta horietatik oso hurbil, Madrilgo Zerain sagardotegia azaltzen da: non dagoen, ze janari mota ematen duen eta gastronomoen aipamenak. Herriaren eta sagardotegiaren artean Alberto Zerain mendizaleari dagozkion sarrerak datoz: zein mendi igo dituen, ibilera horietako kronikak eta elkarriketak.

Abizen ibiltaria da Zerain, inondik ere. Mendizale arabarrak munduko gailurretara igo du, eta duela bost mende Fray Andres Urdanetak itasoetan zehar paseatu zuen, izan ere, Cerain zuen bigarren abizena esploratzaile ordiziarrek; ama, Gracia de Cerain, olagintzari lotutako familia batekoa zuen, Legazpiren tarterikoa.

Abizen hori berbera -Cerain- darama musikari gazte batek, Igor izenez, bizkaitarra; pianista, teklista eta konposatzailea, Simphonikay izeneko taldean dabil; musika akustikoa egiten dute, folk ukituarekin.

Zerain abizena hutsik ageri da batzutan sarean, eta beste batzutan Lopez de Zerain edo Saez de Zerain bezalako forma konposatuetan, Zeraingo jaunaren abizenak noizbait Arabara salto egin zuen seinale.


Baina Aizkorri ez ezik, Atlantikoa ere pasatu zuen Zerain abizenak, izan ere, Ameriketatik dator oihartzuna, Boliviatik eta Argentinatik behintzat bai. Sare sozialetan, Facebooken eta Twitterren, ageri dira abizen hori

daraman jendearen fitxak; adibidez Twitterren azaltzen da Carmen Zerain (Czerain), Boliviatik: "Bio Literatura, Gramática y Lingüística. Me gusta escribir cuentos y poesías. Fanática de la lectura. Dibujo y pintura". Bere hogeitakurkuren zerrendan, gai askotarikoak jorratzen dituela ikusten da, artearekin eta literaturarekin zerikusia dutenak batez ere.

Kuxkuxean segita, Argentinatik datorren aurkikuntza da hau: Marta Cerain. Batetik modelo bezala ageri da, 70eko hamarkadan Buenos Airesen sortu zen "Asociación de Modelos Argentinos"eko kide. Aktorea ere bazen, eta Argentinako zortzi filmetan behintzat parte hartu zuen, 1965 eta 1979 bitartean; gerora, 1988tik 1992ra, telesailetan lan egin zuen.

Ameriketarik haratago segi, Ozeaniara, eta han, Ozeano Barearen hego-mendebaldean, Guam dago, Mariana uharteetan handiena; ba uharte horretan Cerain izeneko herri bat ageri da. Gaur egun Estatu Batuen lurralde ez elkartua da Guam, baina XVIgarren mendetik 1898ra bitartean Espainiaren mende egon zen, gainerako Mariana uharteekin batera; hain zuzen ere, Legazpik aldarrikatu zuen Espainiako erregearen jabetza Mariana uhartearen gain 1565ean, aurretik Magallanesek egin bezala. Legazpirekin zeraindarren bat ibili ote zen Guamen? Edo geroztikako izena ote da?

Topaketa bitxiak borobiltzeko, Mendebaldeko Balkanetatik datorren hau: Cerain izeneko elkarteak Serbiako ijitoen kultura eta hizkuntza bultzatzea du helburu, eta besteak beste hamaika eta hamalau urte bitarteko haur musikariei laguntzeko proiektu bat dauka, familiatik datorkien tradizio musikala gara dezaten. Kasu honetan, Cerain hitza ez da hemendik joandakoa; hango ijitoen hizkuntzan "izar gidaria" esan nahi omen du Cerainek. Koinzidentzia polita, ezta?



Ozeano Bareko Guam uhartean dago Cerain izeneko lekua. Hondartza ederrak eta ur garbia daude bertan.

Goya, Zerain eta Euskal Herria

Edorta Kortadi

Francisco de Goya y Lucientes (Fuentetodos, 1746 - Bordele, 1828) nekazaritza-giroko Aragoiko herrixka horretan jaio zen. Zereala landatzen zen, eta gehienez bi solairuko harri-hormazko etxeak zituen, haizeak eta bakardadeak abailduta, erabateko isiltasunean. Oso herri hotza zen neguan. Ehun etxe baino gehiago izan ez arren, udaletxea eta bi eskola zituen, Goyak ia bisitatu ere egin ez zituenak, eta haurrak jolasean ibili ohi ziren hondatutako gaztelu bat ere bai.

Baina, nongoak ziren Goyaren arbasoak? Nondik zetozen Goyatarrak? Manuel Lekuona historialariak zioen Goyaren arbasoak Zeraingoak zirela, eta Goyatarrek etxe bat eta orube bat zituztela Gipuzkoako herrixka horretan. Baina, ba ote dute datu hauek batere garrantzirik Goyaren pinturak artearen eta kulturaren historian duten kalitate eta esanahi ikaragarriarekin alderatuta? Nolabaiteko eraginik izango ote zuten Goyaren euskal sustraiek haren lanean? Izan ere, haren izaera menderakaitza (nahiago zuen egia edertasuna baino), forma desitxuratu eta groteskoak sortzeko joera, erlijioaren ikuspegi naturalista, sorginkeriarekiko erakarmena..., ez ote euskal jatorriaren seinale? Horregatik, agian, beste euskal margolari batek (Inazio Zuloaga) XX. mendearen hasieran Goyaren jaiotetxea erosi, berriztatu, altzariak jarri eta xume apaindu zuen, Goyaren berezko umiltasunarekin bat etor zedin?. Horregatik, agian, izan zituen Goyak horrenbeste lagun euskaldun?

Nolanahi dela ere, Gaspar Gómez de la Sernak zioenez, artistaren familia, jaiotetxea eta sorterrria apalak ziren. Goyatarrak artisauak ziren; obra-maisuak izan ziren batzuk, eta aitonarik ospetsuena, erregearen eskribaua. Aita, berriz, altzari- eta erretaulen maisu erreztatzailea zuen. Lucientes familia, aldiz, kapare-kastakoa zen, baina, nekazariak izaki, pobrea. Bi belaunaldi besterik ez zeraman familiak Fuendetodosen. Hainbat idazlek - besteak beste, José Rogelio Buendía- diotenez, ordea, Goyatarrek Gipuzkoako Zerain herrixka zuten jatorri. Margolariaren birraitonak, Domingo de Goya, orubea eta etxea omen zituen, baita "odol-garbitasun" agiria ere.

Baina, zergatik da garrantzitsua Goya? Zergatik hartzen dira haren margolanak, hala nola *Las majas*, natura hilak, erretratuak, *2 de Mayo* eta *Fusilamentos*, *Caprichos* eta *Tauromaquia* eta, batik bat, *Pinturas negras* XX. mendeko modernotasunaren eta abangoardiaren hasieratzat? Zergatik dirau bere lanak lehen egunean bezain bizirik eta fresko? Zergatik erakartzen ditu horrenbeste ikusle arrunta nahiz aditua?

Erantzun batzuk ematera ausartuko gara: Botereari eta bizi zen gizarteari aurre egiten gizon ausart eta hezigaitza zen; edertasunaren gainetik, egia eta errealtatea maite zituen, eta *Tapices* lanean islatzen den errealtatearen



Goyaren *Aquelarre* obra.

ikuspegi baikorretik mundu-ikuspegi ezkorragora jo zuen 1790 aldera. Gizon gor eta barnerakoia zen; isolatu eta bere barnealdean kontzentratzen zen, irudimena eta fantasia garatzen zituen, bere mamu propioak. Pertsonak, historia eta bizitzeko egokitu zitzaion garaia maite zituen, biziki maite ere. Ikaragarri atsegin zituen ehiza, emakumeak, haurrak, herriko bizia, otordu onak... Gizarteaz, monarkiaren botereaz, nobleziaz, elizaz eta herri xumeaz ikuspegi errealista, egiazalea eta kritikoa zituen. Emakumeek eta haurrek bereziki erakartzen zuten Goya. Ezkorra eta umore onekoa zen, aldi berean. Ez ote Goya, gure bertsolari eta plazako komedianteen gisara, euskal adarjotzaile peto-petoa? Goyak, zalantzarik gabe, arbaso euskaldunak zituen, eta Zeraingoak, eta badirudi haien eraginik izan zuela. Hala adierazten dute Goyaren mundu-ikuspegiak eta izaerarik sakonena.

Argindarra Zerainen

Joxe Mari Etxaluze

Argindarra Zerainen, Goierri aldean, beste leku askotan bezala garai bertsuan sartuko zen, agian beste leku batzuetan baino lehentxeago. Zerainen argi-indarrari buruz lehenengo paperetan azaltzen diren argibideak 1900 ingurukoak dira, Larraondoko zerran jarritako turbinarenak, baina ahozko tradizioan azaltzen denez, Urrusti-garakoan zen Zeraingo lehenengo turbina eta alternadorea, 3 etxerentzat sortzen omen zuen indarra. Urrusti-garakoa, Urrusti-erdikoa eta Urrusti-azpikoarentzat.

Urrusti-garakoan etxearen goiko aldeko zelaian, gaur ere hantxe dago, ur putzua edo aldaparoa egon zen zabalgunea, etxearen azpialdean Zegama aldetik etxearen kontra omen zen turbina eta alternadorea, eta handik beste bi Urrustitara alanbreak tiratuta, gaztainazko posteak jartzen ziren, gehienetan iraupen gehiago izatearren, eta poste horietan, puntan, kizarak jartzen ziren egurrean, daratulu zulo txiki bat egin eta roska-madera gisan han biraka sartuta. Puntan kizara horiek kristalezko edo portzelanazko bola batzuek izaten zituzten, aislante modura, argi-indarrak zuen arriskua, pertsona edo animaliak arriskutik hobeto babesteko, eta indarra bere helburura bidean galdu gabe iristeko.

Beste askoren gisara, Urrustiko zentralak zuen gabezi nagusia uraren eskasia zen, eta urik gabe ezin argindarra barra-barra sortu. Negu-iturri deitzen zaio, Oamenditik behera datorren errekatxo batetik hartzen zuen ura,

neguan asko ez eta udan batere ez izango zen seguruenik, baina ahalegin latzaren ondorioz eta burua majo nekatuta asmatua. Xanti Muñoa eta Juli Telleriak emandako argibideak. Orduko gizonak emandako aurrera pauso bikain bat izan zela neronek ez dut zalantzaik egiten, euskaldunak aitzindari edo aurrerakoi izan baldin bagara, lanaren eta saiatzearen ondorioz, eta askoren buru argitasunez izan da.

Gauza horren adibide gaur eredutzat hartzen den Larraondoko zerra famatu hori da Zerainen, Larraondon aldaparoa dezentez handiagoa egin zuten. Gaur ere nahi duenak ikusi, dena berrituta martxan dago. Zeraingo bigarren zentrala hori izango zen, 1900eko dokumentu bat azaltzen baita gauza horren berri ematen duena. Larraondokoek etxerako sortzen zuten argindarra, baina horrez gain bertako indarrarekin erabiltzen zuten zerra bat oholak, tabloiak eta piketeak edo hesolak egiteko, eta garai bateko arpan-zerrarekin basoan zerratokia montatu eta eskuz tabloiak egitea adinakoa izango zen. Garai hartarako ez zen nolana hiko aurrerapausoa izango hura, Larraondoko zerran, beste makina asko erabiltzen zituzten, etxean beraiek sortzen zuten argi-indarrarekin, arozgintzarako ziren gehienak eta baita errementaritzarako, sutegian ere are-hortzak, lau-hortzak, atxurak, laiak eta baserrian behar zen erreminta denak zorrozteko.

Zerainen, inor aitzindari izan baldin bada, horiek



ARAKAMA
barne diseinua

Hiribarren, 24 Tel. 943 888 717 - 652 775 955 a.arakama@euskalnet.net
20210 - LAZKAO - Gipuzkoa



Argindar postean jartzen ziren kikarak. Arriskutsuak zirelako beste teknika batzuek ordezkatu zituzten.

Larraondoko Santiago eta Higinio izan ziren, haiek bai burua nekatu zutela, bestela ez zituzten ezerezetik atera zituzten haina gauza aterako.

Hortik ikasbide hartuta edo, 1920 eta 1930 hamarkadan jendeak argi-indarra sortzeari ekin zion. Horretarako martxan zeuden errotaz baliatu ziren. Zerainen, bi errota ezagutu nituen nik martxan, bata, Iñurrategikoa eta bestea, Aizperrota, hau gutxiago ezagutu nuen, guregandik urrutixeago gelditzen zelako. Aizperrota aztertuko dut lehenengo. Errota honetan jarri zuten turbina eta alternadoreak Aizpe auzo guztirako sortzen zuen argindarra. Etxe denetara jarri ziren lineak, alanbreak, posteak eta abar. Denak Patxi Etxaluzek jarriak omen ziren. Argindarra serbitzeaz gain, linea denen zaintza eta konponketa, denak bere gain izaten zituen, baita bi edo hiru hilero argien kostua bezeroei kobratzea ere. Nik ez dakit zenbateraino errentagarria izango zen, baina hala egiten zuten behintzat. Aizperrotak ere, Urrustik eta Larraondok bezala, ur eskasia izango zuen eragozpenik handiena, argindarra barra-barra sortzeko, baina larre motzean ohitutakoak, dagoenarekin pasatu behar izaten da. Maritxu Etxaluzek, Patxiren alabak emandako argibideak.

Orain Iñurrategi aztertu dezadan, Aizperrotari buruz esan dudak guztiak, berdin balio du Iñurrategiri buruz esateko, eta gauza berdinak esaten ez naiz jardungo. Iñurrategik ur emari handiagoa zuen Urrusti, Larraondo eta Aizperrotak baino. Errota honek hiru erreketako urak zeuzkan bere aldaparora bideratuta: Aizpe erreka, Larraondo erreka eta Aldabe erreka. Baina argi-indarrez hornitzeko etxe kopurua ere askoz handiagoa zuen.

Iñurrategik argi-indarrez hornitzen zituen etxeak hauek izan ziren: Etxetxo, Etxeaundi, Arane, Barrenetxe, Zikiri, Sagastibil, Latxe, Mendi biak, Ostatu, Errerone, Olabide, Telleri, Izagirre, Kotxiki, Oiarde biak, Arakamane, Irukarate-garakoa, Irukarate-erdikoa, Etxeberri biak, Unsulategi biak, Arizti-barrena, Ganbaratxo, Xiotegi, Errementari biak, Bikarione eta Jauregi.

Errotako aldaparo koskor batek sortu zezakeen argi-indarrareztat agian, gehitxo. Garai hartan ez zen egongo baserrietan gaur dagoen adina tresna argindarrez ibiltzen zirenak, eta hala hobe. 6 bonbilla etxe bakoitzean, ipurtargia bezalako argia egiten zutenak, baina hala ere ez zen aurrerapen makala garai haietarako. Gauzak aldatu dira ederki, gure bizi aldi honetan, eta oraindik gehiago aldatu behar omen dute. Noraino iritsi behar ote dugu?

Nik etxean argindarra betidanik ezagutu dut, eta senide zaharrenek ere beti ezagutu omen zuten, Etxeaundik bertatik bertara eduki ere, eta ez zitzaion asko kostatuko hariak tiratzea. Ni ez naiz gogoratzen noiz utzi zion Iñurrategik argia sortzeari, baina nik Paulino ezagutu nuen, argiak kobratzen, eta poste puntara igo eta, argiak konpontzen. 1943an behintzat ni eskolan hasi nintzenean, Paulinoren kargu zeuden lehen esan dudan etxe multzo horietako hornitzea eta konponketa eta kostuak kobratzea.

Beste etxe multzo batzuek, beste zentral batzuetatik jarri zuten argi-indarra. Sansebastiango Juan Mari Arrietak (Segura) garai hartan apretagintzan jarri zuen industria eta aurrenetik denak eskuz josten ziren, apreta guztiak, baina tela edo ehuna makinaz egin behar izaten zen, baina hartarako argi-indarra behar eta komeriak erabiltzeko. Zentral koskor horietako bat jarri eta behar

haina indar emango ote zion eskatu omen zion iritzia Pedro Garaialderi, nahiko argi-indar sortuko zion proiektua eta baiezko iritzia eman omen zion. Argibide hauek Patxi Garaialdek emanak dira

Sansebastiango Juan Marik Zegaman, Errota-txiki berea omen zuen, eta hortik argiak jartzeko proiektua egin omen zuen, Pedro Garaialdek (Pedro Lindok), Juan Mari Arrietak Zegamako Errota-txikin argiak jarri zituenean, hari kaso egiteko famili bat behar eta Segurako famili bat hartu zuen lan horretarako. Otaegi Berasategi zen famili hori, ama Maria Mercedes Berasategi, eta aita Franzisko Otaegi. Aita kamineroa zen eta andreak, argi-indar martxa horri kaso egitekotan. Hala, amak goizean argiak martxan jarri, turbinari ura emanez, eta gauean ura itxi eta argiak kendu eta aldaparoa urez beteta edukitzeko kontua eduki eta horrelako lanak izango zituen beste batzuen artean.

Umeak hazi, etxeko burubidea egin eta abar, ez zuen hanka hankaren gainean jarri eta aspertzeko betarik izango. Famili hau, 1922 inguruan joan omen zen Seguratik, Zegamako Errota-txiki horretara. Argibide hauek Pakita Otaegi Berasategik emanak dira 2009ko maiatzaren 27an 89 urterekin. Bera, 2 urte egin baino lehenago joan omen zen Seguratik, Zegamako Errota-txiki horretara. Bere amak eguneko pezeta bat omen zuen jorrala, argindarra Sansebastianen behar zuten garaian martxan jarri, errotako aldaparoa urez bete eta hari kontu egiteagatik. Garai hartan apreta tela edo ehuna, makinaz egiten omen zen, Sansebastianen, apreta zoruak espartuz eskuz egiten omen ziren eta tela gero eskuz josi, Pakitaren bi ahizpa zaharragoak, apreta josten hasi omen ziren Sansebastianen, eguneko 6 erreal jorrala, zenbat ordu lan egiten zuten ez zidan esan, geroago bera ere hala hasi omen zen.

Etixerako baino argi-indar gehiago sortzen omen zion



lñurrategiko errotaren azpiko tresneria.

zentral horrek eta sobrante zeukan indar hori Zeraingo etxe multzo bati saltzen zion, etxe horiek ziren: Otatza biak, Aldasoro, Ansostegi eta Benifiziaune. Horiek argi-indarrarekin ondo zeudela ikusita Goikoetxe-bekoak ere Ansostegitik posteak jarri eta etxean argi-indarra jartzea erabaki omen zuen. Horretarako Barbari-haundiko Joxe Mari arotzari esan omen zion. Hau langile artista omen zen, baina artista gehienak bezala juergista ere bai, eta San Pedro egun batez gelditu omen zen argi horiek jartzera etortzeko. Goikoetxeko Juan Antoniori hitza eman da, baita goizean etorri ere, eta Juan Antonio pozik, egun hartan etxean argiak izango zituelakoan. Joxe Marik trepadoreak oinetan jantzi eta poste puntara igo eta lanean hasi ere bai, baina bai laster aspertu ere, eta trepadorean hortzak postean kateatzeari utzi eta poste puntatik arrastan goitik behera aisa jatsi omen zen, eta hankan min



OSTATU

JATETXEA

20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 99

hartu zuela eta planta eta komeri batzuk egin omen zituen eta hor zihoak Mutiloara festara, beste egun batean etorriko zela esanda. Joxe Mari honek, Donostian lan egiten omen zuen eta auskalo noiz etorri zen argi horiek jartzera, Goikoetxeko Juan Antoniok nahi baino lehen ez behintzat, ez zen izango. Argibide hauek Jose Antonio Iparragirrek emandakoak dira.

Juan Mari Arrietak argiak kobratzeko Felix Alkorta (Felix Meino) (Jodionorte) eta mote edo gaitz izen asko zituen, gure Felix honek, argiak kobratzen bakarrik ez omen zen ibiltzen, txaketa haundi batekin, beti poltsikoak intxaurrez, gaztainez, sagarrez edo etxerako moduko bilatzen zuen edozertaz, ondo beteta ibiltzen omen zituen.

Felix hau Seguran udaletxean sekretario edo laguntzaile modura ere lan egin zuen, baina euskararen alde asko saiaturako gizona ez zen izan, gerra garaian Frankoren aldetik pentsakeraz eroria, eta bere euskararen aurkako grina gaizto horri azkeneraino eutsi omen zion.

Beste zentral bat Armaolan, errotako aldaparoko ura aprobeztatzuz, Gillermo Zubizarretak jarri zuen. Honek transformadorea Segurako Markesaren baratza atzean zuen, eta hortik banatzen zuen argi-indarra, Segurako eta baita Zeraingo etxe askotara ere, Armaolatik indarra hartzen zuten Zeraingo etxeak hauek ziren: Mendarte biak, Zabalegi-garakoa, Zabalegi-azpikoa, Ikorta, Kozmendi biak eta Tellaetxe biak, hasieran argiak kobratzen Gillermo Zubizarreta bera ibiltzen omen zen, baina gero bera zahartzera egin zuenean Felix Alkorta jarri omen zuen lan horretan. Horrela sartu zen Zeraingo etxe denetan argi-indarra. Argibide hauek Mendarteko Inazio Intxaustik, Segurako Patxi Garaialdek, Tellaetxeko Karlos Agirrek, eta Kozmnediko Jose Inazio Berasategik emanak dira gehienak eta neuk han eta hemen bilduak.

Zerainen etxe denetan esan dut, baina ez da egia osoa, oraindik Barbari auzoa gelditzen zait aztertze. Barbari auzora, Zegamatik jarri zuten argi-indarra. Errota-txikin, Juan Mari Arrietak jarri zuen zentraletik banatzen zen indar sobrantea eta hortik inguruko etxeetara eta Barbari auzora ere tiratu eta jarri omen zuten argi-indar kontu hori sukalde denetan, Errota-txiki hau Loja ondoan dago. Juan Mari Arrietarena zen eta berak jarri zuen zentral hori. Lehenago esan dut, Juan Mari Arrietak sobratzen zitzaion indarra saldu egiten zuela, eta Zegama aldean ere hala egingo zuen. Barbari auzora hortik omen ziren argiak, eta Errota-txiki inguruan beste etxe batzuetan behintzat ere bai, adibidez: Bentan, Lojan, eta Altzibarren. Hortik aurrera zenbat etxe gehiagotara zen ez zen gogoratzen, baina argia kobratze lanak Pedro Garaialdek egiten zituela esan zidan. Argibide hauek Pako Pikasari Bentakoak emanak dira 78 urterekin, 2009ko maiatzaren 23an elkarriketa batean.



lñurrategiko errotaren azpiko tresneria.



Errotara ura sartzeko ubidea.

Zentral honetatik, Arretxetik Amondraindik gora Tellaintxo sakanetik barrena Muño (bi bizitza) baserriarekin omen zuen lehenengo lotura eta hortik Basazabal, Arrola-zaharra, Arrola-berri, Barbari-haundi eta Barbari-Arretxe hornitzen omen ziren argi-indarrez. Orain bai esan dezaket Zerainen horrelaxe sartu zela argi-indarra. Herri dena osatu dugulako argi-indarra non eta nola sartu zen azaltzen. Argibide hauek Klaudio Mendizabalek eta Julian Muñoak emanak dira.

Urte mordoska batean hala jarraitu zuen herriko argi-indar hornidurak, baina ez ziren oso argi bikainak izaten gure etxeetan zeudenak, baina hobeak jartzeko aukera iritsi arte halaxe segi behar. Ipurtargiak zirela esan zidan Muñoko Klaudiok, argibide horiek eman zidanean, eta halaxe izan ere, baina hobeak jartzeko komeriak.

1945 edo 1946 inguruan Iberduero sartzan hasi zen eta Mutiloatik barrena Murgiandik, Arakamanetik gora Antxaputxukora, altako linean transformadorera, argi-indarra ekarri zuten, eta lehenengo argi lineak aprobeztatzuz eta horiei Iberdueroren argi-indarra erantsiz asko hobetu



Īnurrategi baserria. Ezker aldean aldaparoa dago eta aurrez aurre, errota zaharra ikus daiteke.

ziren argiak eta orduan utzi zieten Aizperrota, Īnurrategi eta horrelako zentral koskorrak funtzionatzeari. Aizpe auzora Mañastegi-berri ondotik sartu zuten Iberdueroren indarra, han bai zegoen transformadore handi bat. Mutiloako Ergoena bailara ere handik mantentzen zen.

Baina Zerainen, Barbari auzoan, lehen bezala Muñoko Klaudiok esaten zuen ipurtargi horiekin jarraitzen zuten, eta oso haserre zeuden, beren artean bilera bat egin eta Zeraindik, argi-indarraren linea bat tiratzea erabaki zuten. Udaletxean behar ziren baimenak eskatu, Iberduerorekin hitz egin beharrekoan hitz egin, dena konpondu eta 1947 inguruan hasi ziren linea hori tiratzen, auzoko gizon eta mutil gazte denak bildu eta kementsu ekin ere.

Antxaputxun hasi eta Aldabera jatsi eta handik Migeleneko terrenotan gora, Goenetxe eta Latxeren tartetik, Kortatxoko puntara eraman zuten linea hori, handik Orubira eta handik Barbari-haundi baserriaren ondora, hantxe zegoen transformadorea jarrita, eta handik auzoko etxe denetara banatuz jarri zuten argi-indar hori asko kostata, lanez eta diruz. Argi on samarrak edukitzeagatik pozik.

Denerako poste denak gaztaina egurrezkoak jarri zituzten, etxe bakoitzak bereak, bere terrenotan edo basoan zeuzkanak, eta ez zeukanak erosi egin behar, gero haientzat kizarak eta kobrezko alanbrea erosi behar zen, eta lanaz gain, diru asko kostatzen zen halako obra bat egitea. Muñoko Klaudio Mendizabalek kontatu zidan bitxikeri bat, argi horiek nola jarri ziren kontatzen hasi zenean. Hura ere ahal zuena egiten hantxe lanean ibilia, orduan eskola baino sarriago izaten zen guretzat horrelako lanen bat. Antxaputxutik behera posteak jartzen

ari zirela, gizon talde hartan, erretzaile asko egon eta tabako eskasia sortu, Ganbaratxon, garai hartan estankoa zegoen eta bera mutil koskorra tabakoa eroatera bidali omen zuten, Kasimiro Lekuona Arrolakoak bi kaldo pakete, Jose Mari Aizpeolea Muñokoak pakete bat kaldo, Patxi Muñoa Basazabalgoak pakete bat kaldo, eta Barbari-Arretxeko Bernardo Telleriak zeltas pakete bat. Ganbaratxora joan eta tabako pakete horiek Alejandrori eskatu zionean, honek beretzat izango zituela pentsatu eta ez omen zion eman nahi hainbeste tabako, eta Klaudiok esan omen zion etxe ondora irten eta begiratzeko bera enkargu harekin bidali zuten gizonak lanean non ari ziren, hala Alejandrok ikusi zuenean egia esaten ari zela, hala eman omen zion tabako pakete haiek, orduan ere gaztetxoei alkohola eta tabakoa saltzea galarazia zegoen, hala ere arto-bizarra, txori-mahatsa eta horrelakoak erretzen genituen, gizonago egiteko asmoz edo uste horretan behintzat, Klaudio Mendizabal, ni baino urte bat zaharragoa da 1936an jaioa eta neronek ez dut sekula ez zigarro bat, ez eta puru bat erretzen ikusi.

Bitxikeri hau eta antzeko asko, eta beste hainbat gertakariaren ondoren, lana eta nekea franko hartu, dirua ere franko gastatu eta jarri zituzten argi horiek Barbari auzora eta denak pozik egindako lanarekin, izan ere esan behar dut, egiari zor, harritzeko moduko poste ilara jarri zutela, Antxaputxutik Kortatxora, ametradorak tiratutako bala ere ez zen seguruenik zuzenago joango, Antxaputxutik begiratuta poste bat bezala ikusten ziren denak ilaran, ondo alineatutako soldaduak bezala, makina bat jenderi atentzioa eman zion obra hark, Kasimiro Lekuona buru zutela egindako obra izan zen hura, oso

harro egoteko modukoa, eta Barbari auzoko gizon eta emakumeak halaxe egon ziren egindako lanarekin eta etxean argiak izan zuten hobekuntzarekin.

Barbari auzoan bazuten ohitura jator bat, auzoko gizon denak juntatu eta udaberrian arkume bat hil eta burduntzin erreta jatekoa, elkarrekin patxada ederrean, kontu kontari eta pasadizoak kontatuz. Orubiko Larraondoko txabolan egiten zuten, geu ere eginda gaude arkume jatea, broma ederra pasatuz, mutil gazteak ginela. Guk bazkaria egiten genuen eta handik, arratsaldean Zegamara festara joaten ginen, baina Barbari auzoko gizonak, merienda egiten zuten, argindarra Zeraindik barrena handik pasatu zenetik. Argi alanbreri postean enpalme bat egin eta argia jartzen omen zuten, hartara gauari pixka bat gehixeago helduz, giro ederreko parranda apur bat gehiago luzatzeko. Halako batean Don Lorenzo, herriko apaizak arkume jate horren berri jakin zuenean talde hartako norbaiti esan omen zion bera ere pozik joango litzakeela. Hurrengo urtean elkarren artean hitz egin eta bat gehiagogatik berdin izango zela eta hurrengo urtean arkume jate hori antolatzen hasi zirenean hala, gonbidatu omen zuten Don Lorenzo. Eguna iritsi zenean baita joan ere. Hala egin omen zuten arkume jate hori giro ederrean eta denak pozik. Baina horrelakoetan egiten da bixi-bixi edan eta muturra pixka bat berotzen denean komeriak. Don Lorenzo horrek norbaitekin eztabaida gogor samarra piztu eta azkenerako haserrea sortu, hala bukatu omen zen egun hartako arkume jatea. Denak pozik eta alai hasi zutena, denak minberatuta eta zapuztuta bukatu. Don Lorenzoren erruz, urte hartakoarekin bukatu omen ziren Orubiko arkume jateak. Apaiz batzuk bakegile izaten dira, baina beste batzuk gerra jartzailer, sotanak bakarrik ez baitu egiten benetako apaiza eta prailea. Kontakizun hau Santi Muñori zor diot, berak kontatu zidan, bere aitari entzunda bezala, Juan Muñoa ere partaide izaten baitzen arkume jate haietan.

Urrusti hiru baserriek ez zuten parte hartu Antxaputxutik eraman zuten indarrarekin, argi kontuetan errepublika independentea izaten jarraitzen zuten. Haiek Zegamatik Arakama-errotatik zituzten argiak, Gaztanari-barrenetik gora Bost-haitzetatik barrena zuten linea. Baina oso argi kaskarrak omen zituzten, sukaldean bonbilla bat handi samarra, argi polita egiten zuena, baina iluntzean ukuiluan behiak jaisteko sukaldeko bonbilla itzali egin behar, han zerbait ikusiko bazuten, nahiko miseria bazen hura, gainera onaren prezioa pagatu behar. Argibide hau Ines Apaolaza, Urrusti-erdikoak kontatua da.

Arakama-errotan 1929 inguruan jarri omen zuten argindarra sortzeko behar ziren makineri dena. Ordiziako Elkoro eta Larraondoko Santiago Alustiza Zabaleta omen ziren lanak zuzendu eta argiak errotatik jartzen ibili zirenak. Argiak jarri eta berehala, aldaparo erdia luizi batek eraman omen zien eta ez errota eta ez argi gelditu omen ziren, berriro aldaparoa egin zuten arte. Bajuarentzat bajeza eta pobrearentzat beti lana, bi esaldi hauek nekez huts egiten dute bizitzan. Orduan ere hala izango zen. Argibide hauek Inaxi Aldasorok Azpaotza-txikin eman zizkidan 2009ko maiatzaren 23an. Nik Urrusti

hiru bizitzatara ere handik zirela argiak entzunda nuela esan nion. Berak bazitekeela baina ez zela seguru gogoratzen esan zidan, elkarriketa egin nionean 89 urte zeuzkala esan zidan. Etxean argiak jarri zituztenean 8 bat urte zituela berak, oraindik memoria ona dauka Inaxik, baina pixka bat bajatzera egina zeukala esaten zidan. Urteak ez dira alferrik pasatzen, ez Inaxirentzat ezta beste inorentzat ere. Lehengoari eusten orain komeriak esaten zidan, hori egia biribila.

Urrustira argiak Arakama-errotatik zirela Ramon Goiburuk, Gaztanari-barrenak baieztatu zidan. Baita Manuel Gartziak, gaur Mantxola-txikin bizi denak, bera mutikotan Urrusti-erdin bi urtez morroi egona omen da eta ondo gogoratzen da garai hartako argi kontuekin. Haize pixka bat irten orduko alanbreak elkar jo eta akabo argiak, eta eskasa baino batere eza okerragoa izaten zela beti, esaten zidan berak.

Zerain argindar kontuetan beti izan zen aurrerakoia edo aitzindaria eta aurrera ere kezka horrek halaxe jarraitu zuen. Herri guztia argi-indarrez hornituta zegoen aspaldiko urte haietan. Baina hala moduzko lineak eta haizea, elurra edo edozein aitzakiagatik argirik ez zen izaten eta horrek kezka sortzen zituen.

1973ko maiatzaren 10eko akta batean azaltzen denez, orduko udal taldeak erabaki bat hartu omen zuen, herriko argi lineak berriro behar zirela eta zerbait egiten hasi behar zela. Garai hartan udal etxea zuzentzen zutenak hauek ziren: Anizeto Alustiza alkate, Joxe Mari Intxausti teniente alkate, Antonio Alustiza eta Julian Telleria kontzejal. Egun horretan erabaki zuten Iberduero



Aldaparoko uraren irteera.



lñurrategiko errota barrutik.

S.A.rekin kontratu bat sinatzea, herriko linea denak berari uztea, linea berriak jarri eta herria linea hobeaz hornitzeko, horretarako Anizeto Alustiza alkatea baimendu zuten kontratu hori sinatzeko.

Baina hor hasi bakarrik egin zen aldaketa horren funtzioa. Hortik aurrera lan eta eginbehar asko zegoen hori burutzeko, alkatea osasunez nahiko lanekin zebilela eta Gobernadore Zibilari bere arazoen berri eman eta Joxe Mari Intxausti, alkate izendatu gabe alkatetza lanak egiteko baimendu zuen, eta honek bere gain hartu zuen lan hau, baita argi-indar lan horrek sortzen zituen buruhauste eta gainerako lanak ere.

Horrela makina bat lekutan ateak jo eta makina bat gestio egin ondoren Zeraingo etxe denetara ormigoizko posteak eta lau hari tiratu zituzten, hiru argi-indarrarentzat eta bestea neutroa, noizbait ikusi zuten zeraindarrek amets hura egi bilakatuta. Beste zailtasun askoen artean Larraondokoa eta Urrusti-garakokoa aipatuko ditut. Lehenengo aipatu dezadan Larraondokoa. Iberduerok ez zuen bere gain hartu nahi izan bertara linea tiratzea. Jartzen zituen bi arrazoiak, oso aparte zegoela eta gastu hura egiteko etxe bakarra ez zela errentagarria. Beste arrazoiak Larraondokoek ordura arte bere argi-indar propioa eduki zutela eta ez zela inoiz Iberdueroren bezero izan. Horrela argindarra serbitzeko bi kondizio hauek jarri omen zituen: linea berak markatuko zuela nondik nora joan behar zuen eta hortik aurrerakoa, linea tiratzea Larraondokoen gain. Beste irtenbiderik ez eta hori onartu behar izan zuten.

Iberduero S.A.ak, Sagastibildik, Loatxipitik Urkullutatik barrena markatu omen zuen linea hori. Mutilotik Antxaputxura zetozen lehengo kableak udaletxeak eman, lehengo lineak zeuzkan posterik onenak ere bai, falta zirenak berak jarri, herriko jendeak auzolanean lagunduta, noizbait jarri omen zituzten argi-

indar horiek. Hala ere ia 40.000 pezeta kostatu omen zitzaien dena; auzolanean laguntzen ibili zen jendeari emandako trapalako gastuak sartuta. Ez zen ahuntzaren gau erdiko eztula, garai hartarako horrelako dirutza.

Esan behar da Larraondok ia beste denek bezala lau hari tiratu zituela etxera.

Orain kontatu dezadan Urrustik zer zailtasun izan zituen. Hiru Urrustik Zegamatik zeukaten indarra, beraz haien lineak ez ziren Zeraingo Udalarenak, horrez gain Urrusti-garakoa hutsik zegoen eta Iberdueron baja emanda, horrek zaildu zuen Zeraindik argiak jartzea, baina Joxe Mari Intxaustik nolabait zuzendu zituen eta denak pozik argiak eta linea onak jarri zirenean.

Denak pozik esan dut, baina herriko famili denak ukitzen dituen, holako lan sakon bat egiten denean,

oso zaila izaten da inori minik eman gabe egitea, ia ezinezkoa denak pozik uztea, eta Zerainen ere horrelako zerbait gertatu zen. Aizperrotako Patxi Etxaluzek Aizpeako argi lineak bereak omen zituen eta Zeraingo Udalak gaizki ulerturen batengatik edo, herriko beste linea guztiekin batera, Iberduero S.A.ri saldu omen zizkion, eta gauza horrek dezente minberatu omen zuen Patxi, garaiz konturatu izan balira, errez konpondu zitekeen hitz eginda, heriotza ez beste dena konpontzen omen da-eta. Baina hura behintzat hartan pasa zen, eta Patxi bizi izan zen arte egon omen zen horrekin minbera. Bitxikeri hau Maritxu Etxaluze, Patxiren alabak kontatua da, etxetik argi-indarra eduki zuteneko berrien galdezka joan nintzenean, eta egiari zor, inor minberatzeko batere asmorik gabe kontatu egin dut, historia jasota bezala oso-oso kontatu behar dela pentsatzen dudalako.

1974ko otsailean Udaletxean kontzejal aldaketa egon zen, irten zirenak Julian Telleria eta Antonio Alustiza, eta sartu zirenak Luis Aizpeolea eta Santi Muñoa. Joxe Mari Intxaustik eta Anizeto Alustiza alkate jarraitu zuten. Urte bete lehenago kezka beteta hasi zuten lan hura, makina bat buruhauste, lan eta nekeren ondoren, egi bilakatuta ikusi zuten.

1974ko abuztuaren bederatzian inauguratu ziren Zeraingo argi-indarraren linea berriak. Zerainek horrela kendu zuen gainetik argi-indar eskasiak herrian sortzen zuen kezka eta egonezina.

Nire lantxo hau bukatzerako, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lan bikain hori burutu zutenei eta baita niri lantxo hau burutzeko hainbat eta hainbat argibide eman didaten guztiei, beraien laguntzarik gabe inolaz ezin izango nuen lantxo hau burutu.

Bihotz-bihotzez mila esker denoi.

Markos Alustizari bere 100. urte betetzean

-1-

Ehun urtera iritsi zara
zu Markos halabeharrez
gertakizun hau gaur elkarrekin
ospatu dezagun pozez
adin hortara bakar batzuk
iristen dira suertez
ez dakit pasta bereziko
izango zeran edo ez
dakidana da oraindik ondo
zaudela zu osasunez.



-8-

Preso kartzelatik kartzelara
pasatu hainbat denbora
hainbat salaketa tartean da
handik lan gogorretara
burua makurtu egin behar
kaziken esanetara
goseak eta hotzak hil behar
hura gendun ibilera
ez dakit suertez edo milagro
bizirik atereak gara.

-2-

Suerte hori ez da egoten
nahi duenaren eskuan
gutxien uste dugunean
gaude hemen arriskuan
zure bizitza eraman duzu
oso era taxuzkoan
osasun ona eta ondo zaindu
ez leike jarri juzkuan
nik holaxe ikusi nahi zaitut
oraindik urte askoan.

-5-

Gorrotoaren menpean geneukan
Frankok begitan hartuak
hargatik ginen gupida gabe
hortaraino zigortuak
basakeririk ankerren denak
jasatera behartuak
nahiz ta gorputzak zauritan izan
ta bihotzak urratuak
euskaldunak ez ginaden jarri
inoiz buru makurtuak.

-9-

Zerainen ere hamar bat lagun
preso sartuak barruan
bi seme jarri aitaren zaintzan
plaza honen inguruan
eta gaitzerdi tiro bat sartu
ez zietela buruan
kezka haundirik gabe norbaitek
hori re egingo zuan
halere sarri eleizatara
jaunartzera ere joan.

-3-

Hogei urtekin tokatu zitzaizun
zuri soldadu joatea
utzirik aita ama ta senide
eta sortetxe maitea
urte betekin lizentziatu
ai zer nolako suertea
ondoren egokitu zitzaizun
berriz gerra egitea
gazte denbora izan zenuen
zuk deskalabroz betea.

-6-

Horrexek eman zion Frankori
sarri minik haundiena
horregatikan isurtzen zuen
hainbat gorroto guregana
aztu ez dugu inoiz egingo
berak egin zigutena
gorrotoa bizitzea da mundu
hontako gauzik txarrena
gorroto gabe jardun dezagun
eskatzen geurea dena.

-10-

Markos bizitzan gutxi dirade
hau bezelako egunak
gerra garaian pasa zenitun
gogorak eta ilunak
zorionean oroitzapenak
dira orain haiek denak
zure ondoan gaur hartzen gaitu
gu pozak ta maitasunak
Zeraingo herriak eskaintzen dizu
zorionik beroenak.

-4-

Intxortatik ikusi zenuten
Durango bonbardatzen
ez zen samurra nahigabe hura
barruan lasai gordetzen
geroxeago Gernika berriz
dena erre ta kiskaltzen
gorrotoaren lanak ziraden
ez zen samurra ulertzen
giza legean arrastorikan
ez zen inondik agertzen.

-7-

Gizatasunez jardun zinaten
gure herria defenditzen
nahiz ta barrutik sarritan egon
ikaragarri sufritzen
zuen barruan gorrotorikan
itxuraz ez zen kabitzen
nahiz gertatuak maitasunera
ez zuen bat gonbidatzen
saia zinaten gorroto gabe
gertatzen zena onartzen.

Joxe Mari Etxaluze

2010eko maiatzean

Futbol-urte, krisi-urte

Mikel Zalbide

Sagar-urtea zer den badakigu. Intxaur-urtea edo gari-urtea ere bai. Urte onak eta txarrak izaten ditu naturak: oparoak batzuk, eskasak besteak. Pasa ondoren esaten dugu normalean, ez etorri aurretik, urtea ona ala eskasa izan den. Zail da etorkizuna iragartzea. Faktore asko izaten dira tartean, urak alde batera edo bestera makurtzen dituztenak. Guztia ez da, halere, kasualidade huts izaten. Zenbait kasutan posible da, etorkizuna aldeztu aurretik asmatzea. Gorabehera batzuk ziklikoak dira, izan ere, eta zikloaren lehenak geroa iragartzen laguntzen du. Horrelako zerbait gertatzen da fruta-arbolekin: ez fruta-arbola guztiekin, eta ez urtero, baina bai hainbatean. Iaz sagar-urte txarra izan zenez, aurten ona izango dela pentsa liteke: urte biz behin ematen du sagarrak ugari. Iazko eskasiak aurtengo oparotasuna ekarriko duela pentsa liteke beraz. Gertatu ere halaxe gertatzen ari da. Begira ibili gara aurreko batean, herriko eta inguruko fruta-arboletara: sagar-urte ona datorrela dirudi. Intxaur-urtea ere bai. Urte biz behingo zikloa ondo beteko dela dirudi, arbola kontuan.

Beste gauza askotan ere izaten dira gorabehera ziklikoak. Hor dago, esate baterako, futbola. Ziklo-itxura nabarmena du horrek ere. Urteroko ligaz eta antzeko lehiaketek aparte, hor daude Europako eta Munduko futbol-txapelketak. Bata zein bestea lau urtean behin izaten dira, Europatik Mundukora bi urteko tartea delarik. Sagar-urtearen moduan, futbol-urtea ere urte biz behin izaten dugu. Orain dela bi urte, Europako txapelketa izan genuen puri-purian: "la roja" gora eta "la roja" behera, ez zen giro bazterretan. Motiborik ez zen falta noski: Espainiako selekzioa atera zen azkenik txapeldun.

Pasa ziren orduko garaipen-hotsak, harrotasunak eta harrokeriak.

Bagenekien futbol-urtea izango zela, berriro ere, aurtengoa. Ez nolanahikoa gainera. Europako txapeldunek benetako aukera zuten, hainbaten esanean, Munduko kopa eskuratzeko. Baita gertatu ere, estreineko aldiz. Iker Casillas, Xabi Alonso eta konpainia atera dira irabazle. Selekzio bakoitzaren jokomoduak, entrenatzaileen jardura eta jokalariei jakinen aparteko abildadea askoren ahotan ibili dira. Ikuskizun erakargarria izan dute kirolzaleek, txapelketaren inguruan: gogotik disfrutatu dute. Jende asko egon da pantailari begira, ekipo batzuek eta besteek zer egiten zuten ikusi nahirik. Ikusi bakarrik ez: ikusi, bizi, sentitu eta, ahal bada, "irabazi dugu" esan nahirik egon da jendea.

Guztia ez da, izan ere, kirolezko gozamen huts. Hortik gorako tiraizoa du futbolariek. Disfrutatzeaz gainera sufritu ere egin du jendeak, "gureak" irabazten ez zuelako, "gureak" irabazten zuelako edota, agian, motibo biengatik. Denetarik entzun

dut inguruan, herritik irten gabe. Entzundako komentario horietan zentratu nahi nuke gaurkoan. Futbol-kontu hutsaz gainera zer gertatu da, txapelketa dela medio, gure gizartean? Askoren ustean, talde-nortasun jakinen norgehiagoka eta, hein batean, ohorea izan dira jokoan. Selekzio bakoitzaren ohorea eta, hori dela medio, "gu"rea. Gaurko identitate kolektibo askoren ikur eta mami bihurtu dira, izan ere, kirolariak eta selekzioak: bereziki, futbol-selekzioak. "Gu" izatearen agerleku, pizgarri eta bideratzaile bihurtu dira aldian behingo norgehiagoka horiek.

Gatozen aurtengora: nola bizi izan da Zerainen, Espainiako futbol-selekzioaren norgehiagoka eta garaipena? Interes ukaezinez: futbol-orduan ez dut jende askorik ikusi herri-kaskoan. Etxean edo tabernan zegoen jendea, oro har; telebista gehienak pizturik zeudela esango nuke. Zer sentimendu erakarri ditu norgehiagoka horrek? Nola sentitu da



"irabazi dugu" hori, zeraindarren eguneroko "gu" izatearen baitan? Zenbat "gu" dituzte gaur eguneko zeraindarrek, zeraindar huts izatetik hasi eta, eskaileran gora eginaz, munduko hiritar izatera iritsi arte? Are gehiago: zer leku du zeraindarren baitan, era batera edo bestera, espainol-dimentsioaren eskailera-mailak? Izatea baino gehiago sentitzea da hemen kontua: espainol sentitzea, ez sentitzea edota nola sentitzea. Kontu delikatuak noski: gertakari administratibo hutsetik haranzko eragina duen sentimendu-kontu bihurria. Euskal gizartearen aspaldiko bereizgarri eta mende luzeko talkagune ezaguna. Nola txertatzen da sentiera hori, garai bateko "zer gera gu, nor gera gu" harekin? Ba al du "la roja"-rekiko identifikazioak lekuri, eta nolako lekua, "gu gera Euskadiko gazteri berria"-ren ideario soziokultural ez hain aspaldikoarekin?

Euskaldun sentitzetik espainol sentitzera pasa al da jendea, uholde bizian, futbola dela medio? Ez: Manolo Escobarren "que viva España" eta antzekoak ez dira atzo goizekoak, eta "yo soy español, español, español" kantuak ez du inguruotan eztarri askorik lakartu. Txuritik beltzerako saltorik apenas

«Nola bizi izan da Zerainen, Espainiako futbol-selekzioaren norgehiagoka eta garaipena? Interes ukaezinez: futbol-orduan ez dut jende askorik ikusi herri-kaskoan»

gertatu da, beraz, Goierrri alde honetan. Gauza bat da dena dela Zerain, eta beste bat euskaldun gehienak bizi diren Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruña eta herriburuak. Eta gauza bat da txuritik beltzerako saltoa, eta bestea alde bateranzko edo besteranzko desplazamendua, xumea edo ez hain xumea. "Gure" garaipen horrek, hedaduraz eta neurriz, abaniko zabala izan du itxura denez. Litekeena da Zerainen ere aldeak agertu izana bizilagun batzuetatik besteetara. Harrotasun neurrigabearen eta indiferentzia edo disgustuaren punta-muturretan, gainera, hor erdibideko poztasun lasaia. Azken hori izan da, itxuraz,

Euskal herriko leku askotako nobedaderik handiena. Lehendik nabarmen kaleratu gabe zegoen hispano-konformidade modu bat plazaratu da han-hemen. Nortasun-bilaketa zaharberritu baten seinale-marka izan liteke hori: espainoltasuna eta euskaltasuna termino antagoniko-batareazinetan planteatzen ez duen sentiera. Berria da ikusmolde hori, hainbatean, hirurogei urte inguru ditugunontzat: bestelako enfasia zen gure gazte-denboran nagusi.

Zer bide izango du horrek guztiak? Momentuko irakinaldia izan al da dena, ala denbora berrien bide-erakusle? Zaila da jakitea. Talde-nortasunaren alorreko birmoldaketa lasai baina sendo baten aurrean gaude, agian. Formulazio burubakarretik buru biz osaturiko formula alternatibora garamatza horrek, egia baldin bada. Hots, euskal eta espainol dimentsioen orain arte baino formula bateragarriagoetara. Bateragarritasunezko formulazioak ere bere lana izango du: txuri ala beltz aukeratu ordez erdibideko zerbait nahi duenak ere, zenbatean txuri eta zenbatean beltz erabaki behar du. Badu kontu horrek, nalanahi ere, bere garrantzia: funtsezkoa da hori, bereziki, euskal nortasun soziokulturalaren lekua



izal

IMAZ ETA CONTRERAS

PINTURA ETA PAPERGINTZA

Tel: 943 18 70 49 - 943 18 70 45

20213 IDIAZABAL

ahalik eta bizien gordetzeko aukerabideak esploratzeko orduan.

Perspektiba horretatik ere, badirudi mugari moduko bat izan dela aurtengo futbol-txapelketa. Gure talde-izaera pluridimentsionalaz gogoeta egiteko aukera ederra eman du. Ohargarria da, nolanahi ere, talde-nortasunaren kontua (gure gaztetan burges-txikien interes sakonagoen distraigarri edo denbora-pasa huts omen zen afizio hura) zenbateraino bihurtu den, azken urteotan, analisi soziopolitiko serio askoren erdigune. Seinale da, azken batean, "nor gara?, zenbat gara? eta nolakoak izan nahi dugu?" ez direla hain galdera ergelak. Futbol-urte oparoa izanik aurtengoa, sentiera desberdinen zenbatekoa eta zernolakoa antzemateko aukera ederra izan berri dugu. Gauza bat dago argi, nolanahi ere: interes handia piztu du munduko txapelketak eta horren gerri-buelta osoak. Telebistari iltzaturik-edo egon da jendea. Zeraingo kalean ez da inor asko ikusi, zahar edo gazte, partidua jokatu denetan. Futbol-urtea izan da aurtengoa, dudarik gabe.

Futbol-urtea bakarrik ez: krisi-urtea ere bai. Futbola ez bezala, ustez uste gabeen etorri zaigu krisia. Ustez uste gabe etorri da eta, burua aski

gailendua zuelarik ere, kosta egin zaio zenbaiti hartaz jabetzea. Azkenean, jakina, krisiari krisi deitu besterik ez da izan. Urte gogorak izan dira 2009a eta 2010a enpresa-arduradunentzat, lanik gabe gelditu diren langileentzat eta, horrekin batera, itxurazko lanik bilatzeko aukera handirik ez duten gazte askorentzat. Horientzat bakarrik ez: baserritik bizi den jendearentzat ere urte txarrak dira hauek. Lehendik ezinean zeramaten bizibidea larriagotu egin du krisi-kontu honek. Galdetu, bestela, esnegintzatik edo aziendak hazi eta haragitarako saltzetik bizi direnei. Inoiz baino egoera larriagoan daudela diote baserritarrek, eta egia diote seguruenik. Aspaldiko ezaguna dute krisia. Oraingo koiuntura honek larriagotu besterik ez du egin, lehendik aski kritikoa zuten egoera. Krisi-urtea baino areago, krisi-hamarkadak daramatzate horiek bizkar gainean.

Gatozen ordea aurtengo krisira. Aurtengora edo, zehatzago esanik, azken bi urtekora. Lanpostu asko galdu da hogeita lau hilabeteoan, eta beste hainbat lanpostu muga-mugan dago. EREak gogor zabaldu dira han-hemen. Lan berri gutxi sortu da, oro har, galdutako lanpostuen ordainean.

**«Ez ote gara gure
(eta gure planetaren)
neurriaren gainetik
bizi izaten ari?
Horrek ere krisi-
modu bat du berekin:
berehalakoan
nezkez konponduko
den krisia»**

Sortu diren lanpostu gehienak aski badaezpadakoak omen dira, gainera: lehengoak baino ahulagoak iraupenez, irabazbidez eta bestelako lan-garantiaz. Funtzionarioak eta erretiroa hartutako jendea izan dira, azkenik, krisiaren eragina hileroko diru-sarreretan antzematen hasi direnak. Azkenak, oraingoz: gerokoa ikuskizun dago. Galdezka hasi gara guztiok: zergatik hain gogor eraso du krisiak? zergatik hemen? zergatik orain?

Aurtengo krisi hau ez da hemengo kontu hutsa. Sektore jakin batena ere ez: Kontinentala da larrialdi hau, gutxienez, eta sektore askotan ari da eragiten: etxegintzan bereziki, baina ez hor bakarrik. Ez da momentu



OIHARTE
Nekazalturismoa eta erretegia

20214 ZERAIN
Maria Luisa Urrestarazu
Tel: 680 171 291

bateko krisia ere: hamarkada askotako ibilbidearen ondorio da. Ipar Amerikako eta Europa zaharreko "Mendebalde oparo"aren larrialdi zabal eta sakon baten oihartzun bizia. Krisi-eragileei dagokienez, badirudi Ipar Amerikako eta Europako banka-kontuak izan direla krisi bere pizgarri hurbilak: zabor-maileguez eta diru-irabazteko jestio-praktika itxuragabe jakinek piztu dute, antza, oraingo ezinegon. Bere buruaz beste egindako hainbat enpresario handi, diru-analista boteretsu eta abar ez genuen gure bizialdian ezagutu izan. Hil arteko giltzapean sartutakorik ere ez. Guztion poltsikotik ordaindu beharko dugun zorra, zorraren zati bat, jestio-praktika horien errua da. Horien eta, bereziki, diru publikotik salbamena eskuratu ondoan burua lehengo lepotik dutela ageri diren enpresa-arduradunena. Oraingo larrialdiaren iturri hurbila hor egonik badirudi, beraz, hortik hasi behar dela gauzak konpontzen. Hortik eta horien inguruko beste batzuetatik: kabia seguruagoen bila batetik bestera ihesi dabiltzan diru-kontu pribatuak kontrolpean jartzea komeniko da, zenbait profesiotako diru-irabazbideen aitormen-sistema saneatzea, etxegintzaren filosofia soziala (gutako gehienok inbertsio-bide seguru gisa ulertu izan duguna) birplanteatzea eta abar. Kontu horiek garbitu gabe zail izango da krisiari aurre egitea.

Krisiaren kontua ez da ordea hor bukatzen. Badira bestelako eragileak, goiko horiezaz gainera, oraingo krisia eragin dutenak. Hasteko, motibo geoestrutural zabala dago tartean: II. Mundu-gerraz geroztik, eta bloke sobietikoaren orain dela mende-laurden inguruko gainbehera kupidagabeak areagoturik, Europa aberats zaharretik beste lekuetara desplazatu da ekonomiaren ardatza: hasieran Ipar Amerikara eta Japonera, gero Asia urruneko beste hainbat lekutara (Txina eta India buru izanik), arabiar mundura eta, azkenaldian, Brasilera eta beste zenbait ingurumen berritzailetara. Munduko ardatz geoproduktiboaren desplazamendu global hori nekez itzulipurdikatuko da orain, bat-batean. Ez orain eta ez hiruzpalau

urteren buruan ere. Merkeago produzitzen dute han, kalitatez ez dira hain gaizki moldatzen eta, zenbait alorretan, gu bezain teknologia aurreratuaz edo aurreratuagoz ari dira lanean. Jai-egun gutxiago egiten dute, lan-ordu gehiago eta ongi-izatezko zergakarga txikiagoz dihardute: nola egingo die Europa zahar honek goranzko herrialde horiei aurre, hemengo lan-baldintzak zeharo (gure kaltean) aldatu gabe? Bistan da berrikuntza teknologikoan izan dezakegula gure plus-a, aurrerantzean ere. Horretan eta, errazegi ahazten badugu ere, mendeetako lan-kultura eragilean. Ikusteko dago, lehendik etxean ditugun edo bihar-etzi etxera ditzakegun plus-ahalmen horiek ondo baliatzeko gai izango garen ala ez. Belaunaldi oso bat beharko da, agian, produkzio-ur berriak zer aldetara isuriko diren ikusteko. Geure lekua bilatu beharko dugu europarrok, eta horren barruan euskaldunok, kontestu global berrian.

Motibo demografikoak erantsi behar zaizkio, bestalde, produkzio-ardatzaren desplazamendu-kontu horri: haurrak egiteari utzi egin diogu Europan, termino konparatiboetan noski, joan den mendeko 60ko (gure kasuan 70eko) hamarkadatik aurrera. Etorkin-uholde zabalak onartuta ere, adin-piramide berezia jeneratu dugu 1980tik hona: lan-adineko herritar gutxi, eta erretiroa hartutako (edo hurrengo urteotan hartzeko) asko: gero eta zahar gehiago, eta gero eta bizi-itxaropen luzeagoz. Nork eutsi gizarte-molde horri, oraingo bizi-mailari kalte nabarmenik egin gabe? Kontuak larritu egin dira han-hemen, Europa gehiengan. Gogoz kontrako neurriak hartu beharko direla esan zaigu, Bruselatik eta beste zenbait erabaki-gunetatik: erretiroa 65 urtetik gora (67koa entzun da oraingoz, epe ertainera begira) hartu beharko dugula, medikura joaten garenean kontsultaren (eta interbentzioaren) zati bat geure poltsikotik ordaindu beharko dugula, eta abar. Krisi-modu hori ere ez da egun batetik bestera konponduko.

Motibo ekologikoak ere hor daude, azkenik: milioika urtez



sortutako erregai fosilak bat-batean irensten ari gara, munduko temperatura igotzen, itsasoak arrainik gabe uzten, soro-zelaiak ongarri artifizialez eta landare transgeniko berriz betetzen eta, ohitura soziokultural berrien haritik, batetik besterako joan-etorriak itxura gabe indartzen. Posible al da ibilera hori guztia, produkzio-egitura dinamiko bat gabe eta ingurumenari kalte larrikeria eragin gabe? Ez ote gara gure (eta gure planetaren) neurriaren gainetik bizi izaten ari? Horrek ere krisi-modu bat du berekin: berehalakoan nekez konponduko den krisia.

Galdera asko ekarri dizkigu mahaigainera, nolanahi ere, aurtengo urteak. Krisia ez da orain sortu, eta ez da berehala joango. Urteetako lana eskatuko digu, onenean ere. Orain segurutzat hartzen ditugun erosotasun batzuei uko egin beharko diegu agian, bihar edo etzi. Baldintza berrietara egokitzen ikasi beharko dugu. Urte askotako kontua izango da hori. Aurtengo egonezinak aukera ona eman digu, dena den, 2010. urtea krisi-urte dela esateko. Ea 2011n bestelako panoramarik azaltzeko moduan garen. Guztia ez baita futboleko txalo-jotzea, ez eta ezinaren ezinez negar-zotinka jardutea. Behar da itxaropenik, baita nahikunde hutsezko itxaropenik ere, aurrera egiteko. Hala izan da lehen eta hala izango da gero ere: hori behintzat seguru da. Ea beraz notizia alaitsuagoekin gatozen hurrengo urtean.

Aiertzako sugegorria eta Araneko petrikiloa

Jesetxo Zufiaurre

Orain dela 65 bat urteko kontuarekin natorkizue aurten. Nire adinekoek ondo gogoratuko zarete gose-garaia deitzen geniola garai harri. Izan ere, baserrietan bizi zinetenak kalean bizi ginenak baina errazago nahiz eraman, denetan nabarmendu genien guda ondorengo urte gogor haiei.

Ogia eta beste gauza asko estraperloan erosi behar, eta zegoenean garesti, eta famili gehienentzat bizimodua erabateko zaila eta zorrotza gertatu zen sasoi hartan.

Fabriketan lana egiten zuten senarren soldatarekin bakarrik ezin zuten familia aurrera itxuraz atera. Hura izan zen gure gurasoen bizimodu gorria.

Bide bazterretan eta malkarretan magina bat baratzetxo ikusten ziren, baina ez zegoen denontzat hainbat toki.

Nahiz eta kalean bizi, baserriko seme-alabak zirenak, lur muturren baten eske bere etxe aldera jo behar izan zuten. Honela barazki eta patata behintzat, hilabete batzutan izango zuten.

Magina bat emakume gaztek, baratzean majo saiatuz, bete zituen bere umeen sabeltxoak, eta senar-emaztearenak ere bai.

Asteroko kartazaltxoan senarrak ekartzen zituen txanponak, etxebizitzaren errenta, argindarra, arropak eta

oinetakoak, eskolak eta horrelako beharrak ordaindu ondoren ez ziren asko gelditzen.

Halako zerbait pentsatu zuten gure gurasoek ere, eta ama Dorotea Zeraingo Inurritegikoa izanik, bertan bizi zen anai Paulinori, Aiartzan sagasti gaineko otadia erre eta bertan baratza bat egiteko baimena eskatu zion.

Otea erre ondoren, Mutiloako Murgiondo baserriko Eujenio itzainari lurra goldatu eta maneatzeko ardura eman zion, eta lurra prestatu zion, baratza egin zuen.

Beraz, bazeukan lana egin ahal izateko baratza, baina bizi zen Beasaingo herritik dozena bat kilometrotara. Baina horregatik ez zen kikildu, pentsatuta zeukan joan-etorria nola egingo zuen.

Hiru seme-alabak, sabeltxoa talo-esnez beteta, bederatziatarako eskolara bidali, aita eta guk eguerdian bazkaltzeko janaria prestatu eta, korrika baten, astean hiru bat aldiz trenaren geltokira joaten zen, hamaiketako korreoa hartzera. Hantxe eseriko zen egunean lehenbizikoz.

Baina denbora gutxian. Ormaiztegiko geltokiraino bakarrik joaten bai zen. Handik, oinez, Danborreko gaintxora igo eta, garai bateko minatako trenbidea izandako bidetik Lierniaraino joaten zen; handik Mutiloara jaitsi eta, Murgiondo, Kalpatxo eta Etxetxo

Lirain

Lurrindegi, Kosmetika eta Erregaluak

San Inazio kalea, 14 - Tel. 943 88 93 90 - 20200 BEASAIN
Garagarza plaza, 1 - Tel. 943 80 53 27 - 20240 ORDIZIA
San Frantzisko pasealekua, 8 Tel. 943 65 02 39 - 20400 - TOLOSA

baserrien ondotik aurrera, bere jaiotetxera, Inurritegira, iristen zen ordu bete oinez egin ondoren.

Gure amak, Inurritegin aldatu, behar ziren aitzur eta tresnak bizkarrean zituela, Aiartzarako bidea hartzen zuen. Egun batzutan, gauza gehiago eraman edo ekarri behar bazituen, anaiaren astoa hartuta joango zen, baina gutxitan.

Lanean zerbait egin, etxetik eramandako mokaduren bat jan, eta berriro lau eta erdiak arte lanari ekingo zion. Arratsaldeko seiatarako berriro Ormaizte-giko geltokira joan beharra bai zuen, Beasaina zetorren korreoa hartu nahi bazuen. Lau ordu eskas lana egiteko, ia beste hainbeste behar izaten zituen joan-etorriak eta prestakuntzak egiteko.

Hamaika holako ibilerak egin behar izan zituzten garai hartako emakume batek baino gehiagok. Sasoi onean egongo ziren, baina denen beharra izan zuten.

Baratz hartan ateratzen zituen porru, aza, zerba, lekak eta abarretako barazkiak, poltsa handi baten sartuta, gainean ekartzen zituen gure amak, eta etekina zekarrenean pozik.

Udazken eta neguan ere, gure osaba Paulinok emandako sagarrak pozik asko jaten ziren gure etxean. Bai Marianeko gure amaren izebak, baserri askotan ogia etxean egiten zutelako, jaso gabe gelditzen ziren razionamentuko ogi gogorak ere. Uretan beratzen eduki ondoren labean sartu eta goxo askoak ateratzen zituen gure amak.

Behin, gure ama baratzeko belar txarrak kentzen ari zela, eskuineko eskuko hatz erakuslean ziztatakoa sentitu omen zuen, eta sugedorri txiki bat ihesi nola zihoan ikusi ere bai. Hatz gainean bi txulo txiki egin omen zizkion.

Egun hartan astoarekin joanda zegoenez, nekeak odola ez bizkortzearen, bere gainean jarri eta berehala baserrira abiatu zen, eta zihoan eran konturatze omen zen gauza onik ez zeukala. Baserrira iritsi, anaiari gertatutakoa adierazi eta bertan ziplo, ondoeza eginda erori omen zen.

Paulinoren ama Manuelarekin etxean utzi eta, korrika batean, Arane baserrira jo zuen gure osabak. Bai ba zekien hango aitona Saturnino petrikilo ona zela.

Abiatu dira biok presaka Inurritegi aldera, eta etxean zeuzkan oilaskoak hartu eta berari azkar eramateko esan omen zion bidean.


Iritsi zirenean, bizarra mozteko labanarekin gure amaren hatz gainean ebakia egin eta iturriko ur-zorrotadaren azpian jarri omen zion. Eta gure amari orduantxe etorri omen zitzaion konortea.

Agindu zion bezala, Paulinok ekarri omen zizkion lau oilasko sukaldere eta, Saturninok berehala, bat hartu eta oilaskoaren ipurdia zauriaren gainean jarri omen zuen.

Jakina da oilaskoak ipurdia, gelditu gabe beti mugimenduan ari duela. Eta mugimendu harrek, gure amaren hatz barruan sugeak utzitako pozoia zupatu eta atera egiten zion. Azkar erori omen zen oilaskoa ere, ziplo. Sukaldeko leihotik kanpora bota, beste bat jarri eta hura ere berdin. Lau oilaskok eraman omen zuten martxa berdina.

Bitartean, ondoko Etxeaundi baserrikoak eta

Aranekoak ere martxan jarri omen ziren; batzuk Mutiloako sendagilea ekartzera, besteak gure aitari berri ematera. Arratsaldeko bostetan gu eskolatik etxera joaterako bizilagunek bazekiten. Gure aita, lanetik irten, txirrindua hartu eta ziztu bizian joan omen zen Zeraina.



Saturnino Arakama

Gogoan daukat maiatza zela, Beasaingo festen aurretik mataderiko plazan "tio-vivo" eta gainontzeko barrakak muntatzen ari bai ziren.

Baserrian gure ama sendagileak ikusi ondoren, zer botika hartu behar zituen esan eta, gauerako nolabait etorri ziren etxera gure aita-amak.

Egunak bota behar izan zituen amak ohean, herriko sendagileak bisitatzen zuelarik. Gu berriz, eskolatik irten eta gero, Ordizian Sukiak zeukan izoztegira joaten ginen izotzaren bila.

Botikak hartzeaz gain, ohe gainean, ez bustitzeko goma bat jarri, eta besoa izotzarekin edukitzeko agintzen zion eta. Hala poliki-poliki, beso morea horia bihurtuz, joan zen sendatzen gure ama.

Baina ziur nago, botikak eta izotzak ez zutela gure ama sendatuko, Araneko Saturninok egin zizkion erremedioekin pozorik gehiena hain azkar atera ez balio.

Ah! Oilaskoak ere ez omen ziran hil. Euri zaparrada ona egin omen zuen arratsalde hartan eta putzuan ondo busti ondoren berpiztu egin omen ziran lauak. Gaitzerdi sikiera...



Iñurritegiko Dorotea, hamar urte geroago, 1956ko uztailaren 8an, Zeraingo neska gaztekin Arantzazun bere senarrak ateratako argazkian. Zutik: Errementariko Enkarni Apaolaza, Ostatuko Milagros Aizpeolea, Arakamaneke Felipa Arrondo, Iñurritegiko Dorotea Goya. Makurtuta: Barrenetxeko Maritere Bereziartua, Arakamaneke Dolores Arrondo eta Zikiriko Kontxita Arriaran.

Herri txiki baten bila

Egun batean, aitona eta aitona joan nintzen bisita, aitona han zegoen bere egongela patxada telebista ikusten baina ni ikusi bezain laster altxatu zen egongelako sofatik.

Orduntxe, esan nion nire lagun bat Argentinara zihoala udako oporrak pasatzera eta historia batez gogoratu zen:

- Orainxe Argentina esan duzunez gogoratzen naiz istorio batez -esan zidan aitona.

- Kontatuko al didazu istorioa aitona?- esan nion nik, eta kontatzen hasi zen:

- Kontua da, orain dela urte asko Argentinan herri txiki-txiki bat zegoela, baina armada batek suntsitu egin zuen. Nire aitona, hau da, zure herenaitona kontatu zidan.

Nik, herri txiki horretara joan nahi nuen baina zure aitona ez zidan uzten, eta nik esan eta esan baina ezin nuen inola ere konbentzitu, orduan, diru gehiago lortzen banuen joango ginela esan zuen eta bestela ez.

Dirua lortzera joan nintzen kalera eta 250pts. lortu nituen, aitari 250pts. lortu nituela esan nionean, hotelerako bakarrik zela esan zidan diru hori eta gainera gau baterako bakarrik. Orduan kalera joan nintzen paseo bat ematera eta nire lagunak ikusi ninduen eta esan zidan:

- Zer pasatzen zaizu? Triste zaudela ematen du -esan zidan lagunak- bai, oso triste nago. Ezin dut Argentinara joan eta nik joan egin nahi dut herri txiki baten bila, esan nion nik.

- Lasai, nahi baduzu gurekin etorri Argentinara, baina, zuk ordaindu beharko duzu hotela- esan zidan nire lagunak.

Orduan lasterka bizian joan nintzen zure aitona eta esan nion nire lagunak esandakoa, oso ondo iruditzen zitzaizela esan zuen eta joaten utzi zidan, segituan prestatu nituen maletak.

Hurrengo egunean hegazkina hartzera joan ginen.

Ni nire lagunaren ondoan joan nintzen eta oso ondo joan nintzen hegazkinean lo-kuluxka bat ere egin nuen eta.

Iritsi ginen Argentinara, maletak hartu, hotelean utzi eta herri txikiaren bila joan ginen. Herri txiki bat interneten bilatu genuen otsail izena jarri genuen interneten baina Argentinan OTSAIL esaten zioten. Oso izen arraroa benetan, otsail. Turista asko zeuden eta guk ere ikusi nahi genuen eta ikustera sartu ginen.

Gauza asko zeuden, pitxarrak, etxeak erdi erorita...sukaldea ere bazegoen baina ez ziren gure etxe, sukalde horietakoak ez, ez. Dena harriz josita zegoen. Oso polita izan zen eta esan ziguten sumendi bategatik suntsitu zela, baina ez zen horrela armada batek suntsitu zuen. Esan ziguten bertako jendearen aztarnak ere bazeudela, hau da, eskeletoak etab.

Hotelera joan eta bertan pasa genuen gaua. Ni hurrengo egunean esnatu ixil-ixilik jantzi eta gosaltzera joan nintzen. 11:00etan hartu nuen hegazkina ni bakarrik egin nuen dena.

Etxera itzuli nintzenean aita hor neukan zain, aitona, ama eta amonarekin. Oso ondo pasa nuen eta gauza guztiak kontatu nizkienean liluraturik geratu ziren.

Horrela denbora asko pasa da eta orain 72 urte ditut ez dut historia hori inoiz ahaztuko. Horrela izan zen. **HERRI TXIKI BATEN BILA** jarri nion izenburua.



Asmakizunak

- a) Zein hilabetek ditu 28 egun?
- b) Ume bat Deban jaio eta Zerainera doa bizitzera. Non haziko zaizkio hortzak?

Erantzunak: a) Denek; b) Aahoa

Oihane Lazkanoiturburu

- a) Geroz eta handiagoa izan, gutxiago ikusten naiz. Zer naiz?
- b) Zer da, zu lehortzerakoan bustitzen dena?
- c) Edozein soinuarekin hausten naiz. Zer naiz?

Erantzunak: a) Iluntasuna; b) Esku-oihala; c) Isiltasuna

Izar Foroni

Udazkena

Udazkena, udazkena,
Hego-haizea zuhaitzetan,
urre koloreko hostoak
airean,
lurrean.
Katagorriak arboletan
eta gu basoan
perretxikotan.



Haizea, Adur, Irenia eta Haitz



TXIRBIL Koop.E.


EGUR PELLETA, BEROKUNTZARAKO BIOMASA SISTEMA AUTOMATIKOAK

ZERAIN
Tel. 943 800 208
txirbil@txirbil.com

EGURREZKO LEIHOAK ETA ISKILARAK

Denborapasak

Osatu eskolako 5 umek egin zuten
eskulanaren izena:



Irati Saez de Egilaz

Aurkitu eskolan ibili diren 11 haurren izenak:


I	M	N	U	X	U	E	H
L	R	O	R	M	N	A	A
E	S	E	A	H	A	I	I
U	N	P	N	I	I	Z	Z
S	T	E	R	I	H	P	E
V	X	Z	R	A	A	E	A
O	R	T	Z	I	I	A	B
A	D	U	R	D	T	C	D
T	A	M	N	U	Z	Z	E
I	T	S	A	S	O	F	C

Irati Saez de Egilaz

Ea asteko 7 egunak aurkitzen dituzun!

A	S	T	E	L	E	H	E	N	A	N
S	O	S	T	E	G	E	A	S	E	A
T	A	T	I	S	P	R	T	O	U	O
E	L	A	R	G	B	E	F	X	M	S
A	K	E	Z	N	A	R	R	T	S	T
R	E	N	A	Z	O	N	L	G	U	I
T	I	A	K	O	L	I	D	A	N	R
E	D	E	D	K	N	E	H	E	N	A
A	N	A	T	A	B	N	U	R	A	L
A	N	E	K	Z	A	E	D	S	I	A
Z	A	N	U	G	E	T	S	O	T	P

Kokatu 4 garraiabideak gurutzegraman:
HEGAZKINA, KAMIOIA, AUTOA, BIZIKLETA.



Oihane Lazkanoiturburu

Bertsoa

Eskola bukau oporrak hasi
Gauza obeik ezin da ikusi
Guazen denok pistinatara
Goitik behera salto egitera

Benga launek goazen plazara
Denok batea dantza egitea
Musikak jo korukok kanta
Ta umek prestatu ezpata-dantza.

Doinua: Banakoa

Izar Foroni



Zerain (Gipuzkoa) - Tfnoa. 943 800 161
www.lumagorri.es



LumaGorri

Dastatu desberdintasuna



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155